

# MARIYA JAUNGOIGUAREN AMAC

bere viyotz gustiz santu

eta garbico cofradiyan sarturie dagozanai,  
eta cristianu guztiyai emoten deutsezan  
iracatsi ta consejuac.

## D. COSME DAMIAN DE LARAUDO

Bilboko abade jaun, oran aita jesuitiac  
erderaz imiñiyac

## FR. JOSE ANTONIO DE URIARTE

Bernioeo urico colegiyoco aita misionariyac  
uri onetaco eusquerara biurtuac


## D. LUIS DE ECHEVARRIETA

bertaco Abade Jaun, arimen salbaciñoaren  
arduratsuaren escuriz.

---

## BILBON:

Andrés P.-Cardenal, imprenta edo silluteguijan  
1901.—Giarren urtian.



H- 17780

ATV

R- 36912

21620

## MARIYA

# JAUNGOIGUAREN AMAC

BERE VIVOTZ GUZTIZ SANTU  
ETA GARBIGO COFRADIYAN SARTURIC DAGOZANAI,  
ETA CRISTIÑAU GUZTIYAL EMOTEN DEUTSEZAN  
IRAGATSI TA CONSEJUAC.

D. COSME DAMIAN DE LARAUDO

BILBOKO APADE JAUN, ORAN ALTA JESUITIAC

erderaz iminiyac

FR. JOSÉ ANTONIO DE URIARTE

BERMIKO URICO COLEGIOKO ALTA MISIONARIYAC

uri onelako eusquerara biurtuac

D. LUIS DE ECHEVARRIETA

beriako Abade Jaun, arimen salhaciñoa-  
ren arderatsuaren escariz.

---

BILBON:

JUAN E. DELMAS, imprenta edo silluteguijan  
1862.—Gorren urtian,

Saldutenda bere imprentijan, Victor callian, n.º 4



---

## BERBAURREGUA.

---

Guizacume eta etmacumiac millaca  
gure elessetara datozañ dempora baten,  
escatuterá Jaungoicuari ta bere Elessiarí  
baque ta amodiyozeo laztana: batzue asti-  
nduten dituezala euren adimeneco illun-  
tasun astunac , Jesusen amaren viyotz  
guztiz santu eta garbiyac, guizaldi one-  
tan , izarric ederrenaren guisan , zabal-  
duten dituzan arguitasunacaz ; beste ba-  
tzue ichiten dituezala euren pecatu eta  
gaistaqueriyac , eracarriiyac izanic leun-  
tasunagaz , baña guztiz sendaro , Jaun-  
goico beticuac Ama doncella Mariyaren  
viyotz orbanic bagacuan imiñi cituzan

:

onera zoragarri eta edertasunagaz , cein eguin eban pecatariyen ama bigun eta abegui samurreco , ainguero baqueguilla , eta deungueen igueslecu segurua; ecin eguin leiye elezguizon sacerdote Jau-nac gauza egoquiyagoric , onian iraun eraguitia baño arima zoriyoneco oraintzuan Jaungoicuagaz baquetu ta bere graciyan yarri dirianai archicofradiya caridadez betiac cerura zucendu dituzan escari bero eta erregu viciyen bitartez; araco archicofradiya, eregui ebanac bere icena iñoz aztuco ez dan Aita santu batec Ama Virgína garaitzetacuen ellesan ; ceñen cofradiyan sartu diran eurac bere, ondo ezaguturic andic etori yaquezan mesediac, onelan eracuste-co euren esquer ona euren ama ta libratzalliarri.

Beguiratu biar yaque arduraz landara samur onei , eguin euren inguruau esi bat , zaindu daguizan, eta bota sarritan ura ugari , aci ditecen eta eguin zugatz eta arech andi ta senduac. Baña, jnundic eta celan ecarri ur oneec, eta

alcantzau opa eta gura dogun gauza au, ezpada arguituaz adimena oraciñuan, erabilliric goguan gure fedeco eguiyac? Liburu santuac diñue, mundua daguala pecatu eta gaistaqueriyaz beteric, ez dirialaco eguiya oneec goguan erabilten, eta ciurtzat emoten dabe, eguiya oneec sarri goguan darabiltzanac, garaituco dituzala bere griña eta pasiñuac: *Memo-rare novíssima tua, et in æternum non peccabis.*

Alanche da duda bagaric: eguiya oneec sarri goguan darabiltzanac dauca arguituric bere buru ta adimena, daqui num eta cetan daguan bere zori-yontasun eguiyazcua, eta argui onen laguntasunagaz dua aurrera zuzen, arin eta sen lo salbaciñoco bidetic ciar. Eguiya oneec sarritan goguan ez darabiltzazana, vici da engaňauric eta burutaciñoz beteric, eguin eta asmetan dau mundu irudi utseco bat, eta yarraituric bere inguruau daucasan gauzac gogora da-carguiyuezan zoraqueriyai, dua arin beguiyac estalduta pecatu eta gaistaque-

riyará daroian , eta Jaungoicuagandibetico aldenduten daben bidetic ciar aurrerá. Nora doian eta ce bidetic juan biar daben ez daquian guizona da, ichas barruan aurquituten dan mariñel bat leguez, ieusiric bere inguru guztiyan celiái luce bat , beguiratuten ez deutzana ichasorratzari, ez eldu lemiari, yaquiteco nun daugan eta norantz zucendu eta eruan biar daben ontziya. Alaco baten guichiaren uste danian entzuten da dia-dar itzaltsu bat , diñuana : ¡ Ay , ontziya encallauta dago; ez da iñun besterie agiri; ichas bazterretic urriñian gagoz, ay, ay gure errucarriyac!

Alambere jnac sinistu ! euqai arren guizonac ain premiña andiya, izan arren beretzat ain biarra arguitutia Jaungoicuac emon entzan adimena , irabazteco betico iraunian beretzat prestauta dagan zoriyontasuna; alambere guichi dirí zorigaistuan , guztiz guichi, entzunie Jaungoicuaren berba eta euren concien-ciaren diadarrac , erabili oi dituezanae sarri goguan gure fedeco eguiyac. Ba-

tzuc achaquiyarie imiñi baga esaten dabe: nie ez daquit iracurten, eta agaitic ecin euqui neique meditaciñoric. Esaera alperra, bada pensetaco ez dago iracurten yaquitiaren premiñarie. Edoceñec daqñi ez nazala zucenduten onelacuac gana liburu onegaz. Oneec eguin biar dabeena da, entzun onelaco gauzeen ganian adituac diranai: eta batezbere confesore Jaunai, egonic lucerochuago confesiñuan.

Beste batzue, ez bacarrir iracurten daquienac, baitabere yaquintzuac, onera andiyac euren arimentzat euretatic atera leyezan liburuac cegaz erosi dauquenac, esan oi dabe, ecin euqui leiyela meditaciñoric, euren gogua beriala beste gauzaren batera yuaten yaquelaco. Baña edoceñec ezagutu leique, alperra ta utsa dala achaquiya au. Edoceñi bere gogua eruaten deutza asco yuacon gauza batec, urretic cematuten gaituzan gach andi batec. Eta, ¿ce gauza gueiyago yuacunic, salbaciñua baño? ¿ce gach andiyagoric, ain urretic cematuten gaituzan betico

infernua baño ? Beguiratu bedi bada gauza au biar dan arduriagaz, eta eruango dau gogua.

Beste batzuc yaquin arren iracurten, eta izan arren arguiyac eta zurrac, imiñi oi dabe achaquiyatzat meditaciñoraco, ez dauquela cegaz erosi libururie. Ecin castau guiñaiquez, esan oi dabe, amar edo amabi errial meditaciñoco liburu baten.


Oneecgana batezbere ta berariyaz zucenduten da liburuchu au: bertan aurquitucó ditue castu guichigaz gure fede-  
co eguiyiaric premiñazcuenac, iracatsiric  
zucen ta mesedegarriyenac, emoten deut-  
sezanac Mariyac bere viyotz guztiz san-  
tuco cofradiyan sarturic dagozanai, illa-  
ren egun bacocheraco, consejuen gui-  
sa ta moduan; baitabere iracatziyac, artu  
leyezan neurriren batzuen ganian, ceru-  
co bidian asco aurreratuteco.

Asieran imiñi dot iracatsi labur bat,  
yaquin daguiyen celan meditau biar dan.  
Atera dot Pinamonti guizon guztiz on,  
ta yaquintsuaren liburutic. Da arguiya,

laburra, edoceñec aditu leiyana: bacochac artu leique beretzat, nai bestiai iracurteco; botaten daben argui errañuac, issiotu-  
co dan graciaren ots eta Espiritu san-  
tnaren arguitasunai leyal erantzun deu-  
tsen edocein, viyotz.

Chiquiya da, neure anaiya maitiac, dacutsuen leguez, esquintzen deutsuedan liburua: orregaitic ecin iñoc achaquiya-  
ric imiñi leique erosteco, aldian euqui-  
teco echian nai campuan, eta erabilteco erriyan nai bidian.

Mariya, ezarri cguiyozu ceure bendiciňua: eta eguizu ez dedilla bat bacarric aurquitu, ateraten ez dituzanic berone-  
gandie bendiciño, arguitasun eta amo-  
diyozco frutu ugariyac.



---

## IRACATSI.

LABUR, BAÑA BALIYO ANDICUA.

---

¿Cer da meditaciňua?

Meditaciňua , orain erara yatorcun moduan, da erabiltia buruan gure fedeco eguiyaren bat, ondo ondo ezagutu, eta eguiteco proposituac onduteco , ceruco bidian asco aurreratuteco eta onelacuac.

¿Celan emongo yaco asieria lan oneri?

Lelengo aurquitu biar da lecu bacar ta isill bat nai elessan, nai guelan , nai beste edocein lecutan , munducó beste gauzac eruan ez daguigun gueure go-gua. Acordauco zará fedc vici bategaz anche dagnala Jaungoicua : adorauco

dozu aimbat itzal ta erreverenciayaric andiyenagaz: eta esquintcen deutsazuzala berari ceure arimia, ceure eguilla eta Jauna leguez, ceñegandic artu dozun izatia ta daucazun guztiya, esango dozu humiltasun eta ustebetiagaz erregu labur au: «Neure Jaungoicua, neure eguiyilia, neure Aita guztiz maitetzallia: arguitu eguiuzu nire adimena ceure arguierrañu bategaz, ezagutu daguidan ondo ondo, zure aurrian euquitera noian meditaciñuan, buruan erabiltera noian eguiyaya santua: issiotu eguiuzu nire viyotza viciteco beti, zure espirituac eguiyaatan veracusten deustan era ta moduan. Mariyaren viyotz guztiz garbiya lagundu eguidazu, erregutu eguiuzu nigaitic.» Amaiturie erregu au, asico dozu meditaciñua.

Baña, ¿celan meditauco dot, cer egungo dot onetaraco?

Demporarie onena da gossian gosse-cua; eta alan gabian oera zuazanian ondo izango da iracurtia astiro, puntu bacochian cerbait gueldituta, liburuchu onetan illaren egun bacocheraco dagozan

consejuetatic bat, baitabere iracurri ciñaique gossian, orduan astiya badaucazu. Guero asico zará pensetan puntu ba-cocharen berben ganian, ondo aztertu eta gogoratuten dozuzala an sartuta dagozan eguiya ta iracatsiyac, eguiten dozu-la aleguiña ondo incau eta sartuteco ceure goguan, eta ezagututeco euren baliyo andiya. Ieus ieguizu guero, or-durartian vici izan ete zarian, mediteta-zagozan eguiya edo iracatsiyac aguin-duten daben moduan. Beguiratu eguizu arduraz, euretan utsic eguiten ete do-zun, eta cegaitic: ieguizu aleguiña, eza-gututeco ondo zure pecatuen sustraiya, aterateco. Erabilliric onelan ceure bu-ruan eguiya oneec, berez etorrico da borondatia, erabagui ta propositu onac eguitera; eta onetaraco da meditaciñua.

¿Celaco erabagui, ta proposituac eguin biar dira?

Meditaciñoco guei ta eguiyaren eta gueure arimaco premiñen eracuac. One-lacuac dira gueiyenian, gorroto artutia pecatuari; euquitia orainarteko pecatuen

damua ; eta artutia asmo ta propositu sendua, viciteco aurrerantzian, meditau dozun eguiyacaguinduten daben moduan, esateraco, badaucazu meditaciñua, eriyotzaco orduan Jaungoicuac artuco deutsun contu ciatz eta estuaren ganian, berez dator bildurtu eta icaratutia ; eta guero artutia gorroto andi bat pecatuari, eta ez eguitia aurrerantzian, Jaungoicuaren graciyagaz, betico zorigaistoco sentenciyaren duin eguin ciñaiquezan gauzaric: emendic oi dator, erregututia Jaungoicuari, arren parcatu daguzuala orainarteco pecatuac ; emon daguzula graciya, ez gueiyago iñoz pecaturic eguiteco etc. Badaucazu meditaciñua, Jesueristoe igaro cituzan humillaciñuen ganian, graciyaemongo deutsu goguata gurariya, izateco humildia etc. Barriztau eguiuz sarritan, graciyaeraguiten deutsuzan erabgui ta propositu santu oneec: viztu eguizu ceure viyotzian, nai izan dedilla bat, nai bestia: orain ceure pecatuen damua; guero Jaungoicuagana-coamodiyua, eta bere mesediac gaitic es-

quer ona; bein humildia izateco gurari-ya; bestian ceure neque ta naibaguiac-lelengo eruapenagaz ta guero pozagaz igaroteco gogua etc. eguiten dozuzala asmo ta proposituac, guero ta aurre-rantzian oneec guztiyoc betetaco ; eta berba eguiten dozula ceure barruan Jaun-goicuagaz , viyotz beraganaco gogotsu, eta icharopen andiyagaz, eseatuco deu-tsazu emon daguizuzala laguntasun ta graciya ugariyac, goituteco ceure griña eta pasiño deungac eta bete ta cumplie-taco eguiten dozuzan erabagui ta propo-situac. Escatu eguiyozu vere lagunta-suna, ceure ainguera yagoliari , gogo-tic escatu eguiyozu Mariyaren viyotz guztiz gozuari. Liburuchu onetan dago-zan conseju ta iracatsiyetatic bacocha, lagunduten deutsen puntu eta erabagui-yagaz, da irudi bat, eracutsico deutsuna, orain dirautsudan guztiya.

¿Cer eguingo dot etorten baiyataz bes-te gogoraciño ta pensamenturen batzue meditacinuan naguanian?

Acordetan zarianian zagozala beste

gauzaren batzuc goguan dozuza la, ecarri  
eguizuz barriro gogora meditaciuan ira-  
curri dozuzan puntu edo puntuac: egui zu  
aleguinā euroc goguan euquiteco , eta  
eguin borondatiagaz erabagui on eta  
proposituac; eta eun bidar beste aimbeste  
yazoten bayatsu bere , ez zaite estutu,  
egon zaite meditaciuan incentautaco  
demporan; eta euqui egui zu ciurtzat, Jaun-  
goicuac emongo deutsula sari ugariya.  
Santuai bere batzuetan yuaten yaquen  
gogua beste gauza batzuetara, baña yar-  
raitu eutsen meditaciuari onegaitic, ichi  
bagaric, eta orain dauque ceruan euren  
iraupenaren sariya. Alambere , medita-  
ciuan yatortsuzan beste gogoraciuan  
izan ez daquizuzan celanbait borondatez-  
cuac, igues egui zu berbeta alperretatic,  
munduč batzar eta olgantza zoruetatic,  
maitetu egui zu bacartadia , eta vici zai-  
te albait aldenduen genteen artetic.

¿Egun bacochian ceimbat dempora  
egongo naz meditaciuan?

Au erabagui biar dozue confesore Jau-  
nac eta ceuc, adierazoric berari arguiro

daucazuzan primiñazco b'ar eta lanac eta onetaraco gogua ; eta dempora asco dauquenai esaten bayaquee bere , euqui daguiyela gossian ordu beteco eta gabian beste ordu beteco meditaciñua, usste dodan leguez liburuchu au izango dala gueiyenez lan asco dauquenentzat; contu daigun zu zariala onetarico bat, bada ez deutsut gueiyago escatuten, gossian ordu lauren , eta gabian beste ordu lauren baño. Aimbeste ecin badozu , euqui egnizu egunian edolabere ordu laureneco meditaciñua , gossian , arratsaldian, edo al dozunian. Onembeste bere ecin badozu, ez eguiuz ichi iracurri baga bi. edo iru bidar, egun baocheraco imiñita dagozan puntuac, bada dira ondo laburrac ; eta ceure lan ta biarretan zagozala, gogoratu zaite nosicbeñian euracaz. Eta ichi ez daguizun au eguin bagarie, erabilli eguizu beti ceugaz liburuchu au.

¿Cetan igaroco dot dempora gueiyago meditaciñuan , ala adimena arguituten, ala borondatia igitu eta movietan?

Gauza biar eta premiñazcua da, ondo incau eta yositia buru eta adimenian meditetan dan eguiya ; cergaitic ece, onec arteztu eta zucendu biar dan guizon guztiya. Alambere egnin biar dozu beti aleguiña, goguan darabiltzuzan eguiyacaz ecarteco viyotza, eraguitera borondatiari erabagui ta proposituac vicitzia ondu, edo obatuteco; batzuetan viztuten dozuia ceure viyotzian pecatuen gorrotua, artuten dozuzala neurriyac igues eguiteco pecatuco arriscu, bide, lagun eta lecuetatic ; beste batzuetan yarquiteco eta guerra gogor bat eguiteco ceure griña ta gurari charrai , eta demoniñuac burrura ecarten deutsuzan gogoraciño charrai; orain ez iminteco ceure gogo, eta viyotza lurreco ondasun eta onera labur, iraitzeco eta irudi utsecuetan, ezpada beste munduko , ceruko andi, bete , oso, eta beticuetan ; guero emoteco Jaungoicuari esquerrac eguin deutsuzan mesede andi , ugari eta ecin contau leiquezan bestecuac gaitic , eta beste, onen moduko , goguan erabilli dozun

eguiyaren eracuac; edo Jaungoicuaren aurrian, eguiteco gogua yatortzunac.

¿Beti meditauco ete dot egun baco-cheraco iminten dan eguiya, iñoz alda-tu baga?

Baldin ezagututen badozu batetic, edo bestetic ateraten dozula arimaco onera eta mesede gueiyago, eta eraguiten deutsu-zala erabagui eta propositu obaguac eta senduaguac, enqui biar dozu bere ga-nian meditaciñua egun batzuetan, bai-ta aste osuetan bere; cegaitic eco, zure gogo eta viyotzian ondo iratsi, incau eta yosiric gueldituten dan eguiya bat izan leiteque asco, iraun eraguiteco zuri vi-citza onian. Bardin ezagututen badozu, meditaciñoraco guei ta puntuen ostian iminten dirian erabagui eta proposituren batetic ateraten dozula besteetatic baño arimaco on ta mesede gueiyago, aube-rau eguin ciñaique dempora zati baten.

?Celan amaituco dot meditaciñua?

Amaitutenean meditaciñoraco dem-poria, eguiyu aleguiña ecarteco gogora eguin dozuzan erabagui ta proposituac,

eta escatu eguiyozu erregu viciyacaz Jañari, emon daguizula graciya eurac bete eta cumplietaco ; eta alcantzau da-guizun erregu onecaz escatuten dozun guztiya, zucendu eguijuz ceure ama mai-te Mariyaren bitartez, esaten dozula be-ti, araco erregu miragarri, alabantzaz beterico , elessan escubidia dauquenac aimbeste indulgenciyagaz aberastutaco, ain samur ta gozo, orain emen iminten dodana:

+ »Gomuta zaite, ó Mariya virgiña guz-tiz erruquierra , ez dala iñoz entzun, zuc desamparauta ichi dozula batchu be-re, zugana zucendu , zugana eldu, eta zuri laguntasuna escatu deutsunie. Uste ta icharopen onegaz sendaturic, ó Ama doncellen doncellia , nator arin aringa zugana, eta macurturic neure pecatuen pisuaren azpiyan, negar eriyuan, echu-ten naz zure oñetan. ¡O Jaungoicuaren semiaren ama ! ez eguiyezu arren nire erregüei ezentzunie eguin, eta bay abe-gui onagaz aditu eguijuz, eta emon egui-dazu escatuten deutsudana. Alan izan

dedilla. Pecatariyen bitartecua, erregutu  
eguizu gugaitic *Iru ave Mariya.*

Neure anaiya maitia: ontasunen Jaungoicuac Mariyaren viyotz guztiz santu ta garbiyan imiñi cituzan argui eta graciayac, yatsi ditezala ugaritasun andiyagaz, zure adimen eta viyotzera. Alan izan dedilla. Erregutu eguizu nigaitic.

Jaungoieuaren amac bere viyotz garbico archieofradiyan sartuta dagozanae, eta cristiñau guztiyai, illararen egun bacoheraco eguiten deutsezan berba, eta emoten deutsezan iracatsiyac.

## ILLAREN LELENGO EGUNERACO.

### GUIZONAREN AZQUENA.

4. Ene semia, urte guichi batzue barric dira zu ez ciñiala, eta Jaungoicuac atera cinduzan ecer ecetie; emon eutsun adimena bera ezagututeco, viyotza bera maituteco, eta gorputz bat bere centzunacaz, Jaungoicua bera adoretaco; zure izeate guztiya gorpuz eta arima, da bera

servietaco. Jaungoicuari zor deutsazu daucazun vicitzia eta arnasia: Jaungoicuaren a zara guztiyori, ¿baña maitedo zu Jaungoicua? ¿Servietan dozu Jaungoicua?

2. Cerúen anditasunac, lurreco edertasunac, ichasuen zabalera eta sacontasunac, gauza guzti guztiyac, lurreco pataririe chiquiyenenerañocuac daucazuz deyez ta dirutsue diadar andiyaeaz, maitetu eta serviu daguizula euren eta ceure eguilla eta yaubia: ¿cegaitic zuc desprecietan dozu? ¿ce gach eguin deutzu bera ofendietaco?

3. Astiro eta gogotic pensau eguiyu, ene semia, nundic zalozan, eta nora zuazan ¿Ceren billa zabiltz lurraren ganian? ¡Ay! Laster amaituco da zure vicitzia. Billatu eguiyu, ene semia, zure Jaungoicua: ceruraco eguiña izan zarian ezquero, irabaci eguiyu cerua: maitetu eguiyu Janngoicua, servidu eguiyu Jaungoicua.

#### ERABAGUIYA.

¡O neure ama guztiz gozua! ¡Ce erua

izan nazan, ce esquercharrecua, ce deunguia! ¡ Neure Jaungoicua, neure egui-llia; neure aita, erruquitu zaite arren niggaz! Nie esquintzen deutsudaz oraindissec vicitza guztiraco, neure gorputza, neure arimia, neure gogoraciño guztiyac, gurariyac, berbac, eta artuten dodazan arnasa guztiyac. Nie maitetu gura zaitudaz, servidu gura zaitudaz. *Gamuta zaite, etc. Iru ave Mariyac.*

## BIGARREN EGUNA.

### PECATU MORTALA.

1. Entzun eguzkiz, ene semia, nire biyotzaren ots eta taupada samurrac. ¿Gogoratu badozu iñoz astiro, ce gorroto andiña deutsan Jaungeicuac pecatuari? Deutsa amaibagaco gorrotua, eciu ichi leiquiyo gorrotoz beguiratu baga eta bere gorrotua pecatuaganaco izango da ain beticua, cein da Jaungoicua bera. Bai, ene semia, cegaitic ece, pecatu mortala egniten dabena,

yaiguiten da bere Jaungoico andi, eta ceruco erreguiaren contra, ezicusi eta despreciyuagaz beguiratuten deutse bere santutasun, eta onoidadiai, eta agaitic da pecatu mortala, esquerbaguetasun amaibagaco bat, gaistaqueriya amaibagaco bat eta berbacaz adierazo ecin leiquian prestuezqueriya bat. ¡O ce gauza ezain, ichusi ta icaragarriya dan pecatua!

2. Jaungoicua beti dago adi ta beguira gauza guztiai: bere beguiyen aurrian bada eguiten da pecatua: berac dacus, eta gomutauco da pecatuagaz ordu ta une guztiyetan; eta pecatariyari parcatu ezquero bere, beguiyen aurrian euquico dau pecatua beticoiraun guztiyan. ¿Azartuco zara onezquero, ene semia, pecatu bacar bat bere eguiten?

3. Ez zara onezquero miraritu biar, ene semia, entzunaz, santuac alaco alequin andiyac eguin dituezala, pecatuan ez yaustiarren; gogoraciño loi baten esetsi edo ta tentaciña goitutiarren, batzue erabilli ebela giran euren gorputza arantza artian; beste batzuc sartu

ciriala pozu leituetan; baita bere beste batzuc ibilli ciriala chingar goriyen ganaian. Ejemplu oneetatic ieasi eguizu, icaraz beguiratuten pecatuari.

#### ERABAGUIYA.

¡O neure Jaungoicua, neure aita guztiz biguna! Pecatu eguin dot ceruaren contra eta zure contra: ni zucenduten naz neure salbaguilliaren zauriyetara: bere odol Jaungoicozeuari naoca: esquintzen deutsudaz bere irabaciyaacaz batuta neure neque ta naibaguiæ. Pecatu eguin dot, neure Jaungoicua: eguin nai dot penitenciya emparetan yatan bicitza guztian. *Gamuta zaite, etc.*

#### IRUGARAEN EGUNA.

#### ANIGUERUEN CASTIGUA.

I. ¡Ce ederrac cirian aingueracl! ¡Ce doe miragarriyacaz bete cituzan euren eguilliac! Jaungoicuacl agortu cituzan,

alan esateco , bere indar guztiyac , bere yaquituriya guztiya , bere ontasun guztiya , bere izatiaren irudi arrigarri oneec eguiten. Luzbelec eguin eban pecatu bat: aingueru ascoc yarraitu eutsen : eta berriala bota cituzan Jaunac ceru altutic infernuco ossin saconetara. ¡ Ce gogortasuna !

2. ¡ Ay ene semia , ez dabe onezquero zorigaistoco areec iños ieusico Jaungoicuaren echeço anditasun eta gloriya ! Egongo dira beti sutan eta garrez inguraturic ; Jaungoicuac beti beguiratuco deutse aserre eta gorrotuagaz. ¡ Ce gastigu icaragarriya au !

3. Trumonada enen otsagaz , oñaztari onen arguitasunagaz , ¿ nor icaratuco ez da ? Icasi eguizu , ene semia , aingueruen castiguti , igues eguiten. Jaungoicuaren aserriari. ¡ Andiyen galdu mendi-yagaz conturatu bitez chiquiyac !

#### ERABAGUIYA.

¡ Ay neure ama , ez nagui zu arren ichi

une bacar baten bere! lagundu eguida-  
zu yausi ez nadin iños ostera pecatuan.  
Nic erabaguiten dot artutia neure al-  
detic neurri guztiyac. Iracurrico dodaz  
gogotic, pecatuaren gorroto neurribagaco  
bat nire viyotzian viztuten dabeen liburu  
onac. Gogait eraguingo deutset, biar  
bada, neure adisquidai, mesedesz emon  
daguidezan liburu onac. Gorrotoz begui-  
ratuco deutset liburu char guztiyai, eta  
iños elduco balitz nire escuetará elessa  
santiac eragotzitaco libururic, beriala  
emongo deutsat neure confesoriari. *Go-  
mota zaite, etc.*

## LAUGARREN EGUNA.

### PECATUAREN CASTIGUAC MUNDU ONETAN.

1. Entzun eguzu, ene semia: lelen-  
go guizonac ausiten dau Jaunaren  
iguindua: eta beriala gueldifiten da  
Jaungoicuac emon eutsazan doe ta andi-  
tarunac galdurie, eriyotziaren mendian  
eta eguin biar dau bederatzireun urteco

penitenciya. Cainec ilten dau bere anai-ya Abel, eta une atatissec beratatissec yausten da bere ganera ceruco aserriaren pisu astuna ; guztiya bildurrez icara gueldituten da, dua arin nora ez da quiyla, igues eguiten dau bere senetik urtenda leguez ; eta edonora yarraituten deutso eta edonun penetan dan, beti aurrian dauean pecatuac. ¡ O cein laster asten diran castiguac !

2. Entzun eguzu oraindiño, ene semia : pecatuaren usteltasuna zabaldutен da guizonen artian, eta uriyola baten itoten dira Adanen seme alaba guztiyac, bacarric Noe ona ta bere ehecuac gueldituten dira viciric. Sodoma eta beste Pentapolisco, uriyac aserratu eraguiten deutse Jaungoicuari euren nabarmenqueriyacaz, eta auts biurtuten ditu, botarie goitic edoiyetatik suzco euri zaparradac. Beste castigu ecin contau lain ecarri cituzan pecatuac, salbaguillia etorri baño lenago vici cirian guizonen gane-  
ra, batzuetan guizon bacarren ganera, beste batzuetan ascoen ganera.

3. Baña ez daucazu, ene semia, ain anchiñaco demporetara beguiratuen premiñaric. ¿Ez dantzuzuz egunoro cemba gach eta naibague dabiltzan Adanen se me alaben artian? Jaungoicua dago yarrita munduaren erdiyan, juzguetaco lurreco gaistaqueriyac. Batzuetan aguinduten deutse edoiyai, ichasoco olatuai, eta uriyolai, beste batzuetan aguinduten deutsa guerriari deseguiteco Jacob; izurriyari Israel, eta gosiari Juda. Pecatuarri beguiratu biar yaco beti, mundu guztiyaren lotsari eta madaricaciñoiari legez.

#### ERABAGUIYA.

Neure Jaungoicua, damu dot pecatu eguiña! ¡Ay, parcatu eguidazu, borrau eguiuz nire gaistaqueriya guztiya! Lenago nai dot galduetia milla bidar vieitzia, barriro zu ofendidu baño. ¡O Mariya, neure ama gozua, au da nire erabagui sendo ta eraguilla: lagundu eguidazu ausi ez daguidan iños. *Gomuta zaite, etc.*

## BOSTGARREN EGUNA.

### PECATU MORTALAREN CALTIAC.

1. ¡Ce triscantza eta ondamendiyac eguiten dituen, ene semia, pecatu mortal! Graciya da izate eta gauza bat ain baliyo andicua ce, zuc euqui eta zuria izatiarren bota eban nire semiac, nire erraiyetan artn eban odol guztiya, eta nic bere ontzat emon nituzan nire vi-yotzeco martiriyo guztiyac curutziaren oñian. ¡Eta pecatu mortal bacar bat da asco quenduteco arimiari izate eta gauza ain baliyo andico au, eta ichiteco irabaci guztiyac galdua billosic Jaungoicuaren beguiyetan!

2. Graciyan daguan arima guztiya da, Jesusen gorputzeco zati vici bat, aita cerucuaren alaba laztan bat; baña ozta loitu eta desondretan da pecatu mortalaz, galduen dau Jaungoicuaren se-me edo alabatasuna, yarten da demoniuaren mempeco zatar eguinic, eta gau-

zaric beeren eta igüingarriyena. Eta ez da au bacarric, ene semia: pecatu mortaliān ilten danaren zorigaistocua! Pisuguztiz andi batec darua bere arimia betico penen lecura, berari yaocan leguez.

5. ¡Cembatec negar eguiten dau, ene semia, il yacolaco aita, edo anaiyia, edo adisquidia; eta ez dabe negarric eguiten yaquin arren il dabela euren arimia pecatu mortalagaz, aldenduten dirala Jaungoicuagandic, cein dan, adisquide guztiyen artian leiyalena, anaiya guztiyen artian laztanena, eta guraso guztiyen artian maitegarri eta samurrena! ¡O eriyotza milla bidar zorigaistocuago eta caltegarriyagua, eriyotza guztiyac baño!

#### ERABAGUIYA.

¡Nic izan gura dot Jaungoicuaren semia, eta izan gura dot zure semia, o ama guztiz gozua! Lagundu eguidazu aztertu ta esamiñetan ardura andi bategaz neure vicitza guztiya. ¿Onac izan ete dirá nire orainarteko confesiñuac? ¿Eldu

ete naz sacramentu santuac artutera biar dirian prestaeracaz? Ezagutu eraguidazu celan aurquituten dan nire arimia.

## SEIGARREN EGUNA.

### SALVACIÑUA.

1. Ezagutu eguizu, ene semia, salvetaco lan ta biarrac ceuc eguin biar dozuzala. Ez badozu, onetan pensetan, ¿noc pensauco dau zugaitic? Edoceimbere lecu ta egoeratan aurquitu dedilla guizona; sacerdotiac bere lan santuetan, erreguiac bere jauregui ta yarlecuan, soldaduac armac escuan dituzala, mercatariyac bere saldu erosiyetan, languilliac eta necazaliac bere biarretan; guztiyac, dirianac euqui biar dabe beti beguiyen aurrian euren salvaciñua. Au da gauza bat, ardura guztiyagaz beguiratu biar dana, eta ceñetara zucendu biar dabeen emparau guztiyac.

2. Au da gauza bat, ceñetan yuauquen, zure gorputz eta arimiari, izatia

betico zoriyonecuac ceruan, edo betico zorigaistocuac infernuan. ¿Cer eguiten dozu, ene semia? ¿Cegaitic ez zara necatuten ceure indar guztiyacaz, ceure arimia salvetaco? Ez bazara necatuten ceuri bacarric yuatsun gauza baten, ¿nor necatuco da zugaitic? ¡Ce zoraqueriya! Arima bat bacarric daucazu, arima bat beticua, iños ilgo ezdana: bein condenetan bada, ez dago infernutive urteiteric.

3. Igaro eguizu ondo, ene semia, emendic aurreraco vicitzia, duazan egunac ez dira barriro etorrico. ¡Ay! orainche, ordu eta une onetan, ez bazara asisten gogotic ceure arimia salvetaco lane tan, oraindissec bildur izan biar zara, ez zariala iños asico. ¿Oraingossia baño beste dempararie aldaucazu ceure escuan?

#### ERABAGUIYA.

¡O ama, ce guichi necatu nazan orainartian neure salvacinua alcantzetaco! Baña orainche, ordu eta une onetan asisten naz: nic artutene dot gogo ta asmua

igaroteco neure vicitza guztizco ordu ta une guztiyac al dodazan gauza on guztiyac eguiten. Erabaguiten dot meza entzutia, altaraco sacramentu santua visitetia; eta erosariyuа erregetia neure vicitzaco egun guztiyetan, osasunac lagunduten badeust, eta astiric badaueat. Yuango naz elessaco funciñuetara, sermoietara eta beste lan santuetara, batez-bere yai arratsaldetan zure viyotz guztiz santu eta garviyaren ondran ta alabantzan eguiten dirianetara. Icisten dozu cer erabaguiten dodan, ene ama: alcantzau eguidazu azqueneraño irauteco graciya. *Gomuta zaite, etc.*

## ZAZPIGARREN EGUNA.

### ERIYOTZIA.

1. Ondo daquizu, ene semia, ill biar dozula; eta eriyotzac sarri izaten dira uste bagaco ta derrepentecuac. ¡Ay, ill ciñaitequez gau onetan beronetan, nire berbac entzuten zagozan ordu onetan be-

ronetan!... ¿Celan vici zara ene semia? cer eguiten dozu, prestau bagaric pausu ain bildurgarri bateraco?

2. ¡Ce andi eta bildurgarriya dan ilten daguan pecatari baten estutasun eta larriya! Yarriric betico irauneraco atetan, dacusaz bere vicitza guztiyan eguin dituzan pecatuac; dacusaz ur urrian daucazan, arriscuac: arrituric beguiratuten deutsa sartu biar daben leza ondoric baguiari. ¡O eternidadia, eternidadia! ¡O betico irautia, betico irautia!

3. ¡Eguizu orain, ene semia; orduan eguiñic euquitia guraco cenduquiana: eguizu atzerapen baga, estutasun eta bildur ain icaragarriz beterico ordu atan menturaz ecingo dozuna eguin!

#### ERABAGUIYA.

¡O ama; neure azur guztiyac icaratu-  
ten yataz! ¡Ay nire zorigaistocua, eri-  
yotziac artuten banau orain naguan ego-  
era ta estaduan! Nic eguin gura dot  
berpertatic neure vicitza guztico confe-

siño bat: zucendu ta arguitu gura doda  
z neure gauzac: prestau gura dot eri-  
yotza on bat eguiteco Eruan nagizu,  
neure ama, confesore on batgana. Er-  
regutu egnizu nigaitie. *Gomuta zaite, etc.*

## ZORTZIGARREN EGUNA.

### BACOCHAREN JUICIYUA ERIYOTZACO ORDUAN.

1. Entzun nagizu, ene semia: ilten  
zarian ordu, une, eta lecuan aguertuco  
da zure arimia Jaungoicuaren aurrian;  
eta icusico dan alde aldebatera bere vi-  
citza guztiya. ¡Ay celacua izango dan  
arima pecatariyaren bildur ta icaria, yar-  
ten yacozanian bere aurrian baturic  
bere pecatu guztiyac; gogoraciñoric ezcu-  
tuenerañocuac; ez onezquero estalduric  
len iminten eutsezan edergarriyacaz ez-  
pada bacochea bere gaistaqueriya eta  
ezaintasun guztiyagaz!

2. Berpertatic emoneo dan epaya vi-  
ciyen eta illen juezac; eta bere epaya ez  
da iños aldatuco! Utsae eta alperricacuac

izango dira achaquiyac , eta erreguac: ez dago bestegana zucenduteric. Edo cerura betico, edo betico infernura. ¿Cer diñozu, ene semia?

3. Cerucua bada epaiya, beriala arimia, purgatoriyyora yuan biarri ez badauca , batuten da Jaungoicuagaz , eta gueldituten da bere zoriyontasun eta gloriyagaz bete, ganez egun eta ondaturic. Epaiya bada contracua, ernegau eta amorraturic arimia yaurtiguiten da bera infernuco ondar saconetan. ¡Ay, ene semia , sentenciya bi oneetatic bat entzun biar dozu, eta dempora andiric igaro baga, Jaungoicuaren aotic!

#### ERABAGUIYA.

Neure Jaungoicua , castigau nagizu mundu onetan: bialdu eguidazuz nai dituzun neque ta naibaguiac , izan dedin nire oneraco beticoiraunera sartueran emongo deustazun sentenciya. Prestauta nago igaroteco bialdu nai deustazuzan pena gaztiyac , nie artuco dodaz

pocie. ¡O Mariya, lagundu eiquedazu neure eriyotzaco orduan, eta alcantzau eguidazu orain graciya, edoceimbere lan asten dodanian, esateco neure buruari: ¿ce sentenciya emongo ete yaco orain eguitera noian lan oneri? *Gomuta zaite, etc.*

## BEDERATZIGARREN EGUNA.

### MUNDUAREN AZQUENECO GUZTIYUEN JUICIYUA.

1. Badaquizu, ene semia, munduaren azquenian guztiyoc batera juzgauco gaituzala Jaungoicuac, eta aguertaco deutsela ainguerauai eta guisonai, cein zuzen, eta artezac izan dirian bere sentenciayac ; ezcutuan emonico sentenciayac. ¡Ay erriyen zorigaistocuac, mundu guztiyan entzuten danian ainguerauren voz, trumoniadiaren irudicua : *Icaratu zaite Jaunaren aurrian eta emon eguiyo zu gloriya, cegaitic ece yo dau onezquero bere juiciyorako orduac.* ¡Egun arrigarriya! ¡Eta ce ieusgarri bildurgarriyac izango dirán bere aurretic!

2. Izango dira lurricara andiyac; ichasoco olatuac igongo dabe edoietaraño, eta bere abarrots andiyacaz bildurtuco ditu mendiyac eta muruac: icusico dira oñaztuac, yausico dirá oñaztarriyac; eta trumonaden ots itzaltsuacaz egongo dira guizonac icararic andiyenagaz. Eguzquiya illunduco da ; illarguiya odoldu ; igues eguingo dabe ta ezcutauco dira ceruac, euretan argui eguiten daben izarracaz. ¡ Ay pecatariyen zorigaistocuac egun icaragarri atan!

3. Amaiturie mundu guztico ots icaragarriyac, yoco ditue ainguerauc trompeta soñuac, ceinzuec sarturic lurraren erraiyetaraño, deituco deutse juiciyora Adanen seme alaba guztiyai , eta illac guztiyac viztuco dira. Curutziaren estandartia egongo da aguirriyan ceruan illuntasunen artian; eta guizonaren semia yatzico da guztiyoc juzguetara , yarriric edoi eder baten ganian , escubide , anditasun eta itzalez beteric. ¡ Ay zure zorigaistocua , ene semia , orain erruquitasunen dempora onetan artuten ez

badituzu neurriyac orduan ondo urteiteco.

#### ERABAGUIYA.

Bai, neure ama: gura dot prestau egun ataraco, emparetan yatan vicitza guztiya ondo igaruaz: gura deutsat pagau orain Jaungoicuari neure peçatuen zorra. Barauac, ciliciyuac, eta neure confesoriac eguiten ichiten deustazan laztaun guztiyai guichi erechico deutset, sentenciya emongo deustan juezagaz ondo egotiarren. Alcantzau eguidazu, neure ama, neure pecatuac gaitic negar ugarri eguiteco, eta neure vicitza guztiyan penitenciya eguiyazco bat eguiteco gurari viciyen doe ta graciya. *Gomula zaite, etc.*

#### AMARGARREN EGUNA.

#### SENTENCIYA.

1. Ez zaite arren gortu, ene semia, nire viyotz, ama batena leguez samurrac

eguiten deutsuzan diajarrelara. Entzun eguzu orain ceren ganian artuco deutsun guztiyen juezac contu ciatz eta estua. Zure eguillia leguez artuco deutsu, bera adorau eta servietaco emoten deutsun era eder eta laguntasunen contua: aita leguez imiñico deutsu beguiyen aurrian zuri deutsuñ amodiyo samurra, eta zure esquerbagatasuna beraganaco; eta salvaguillia leguez artuco deutsu contua sacramentuac prestaera charragaz artu cenduzalaco, euretatic biar cenduquezan onerac atera ez dituzulaco; ceruco bidian yarteco zuri beti eguiten diarduan deiyiai ta bialduten deutsuzan arguitasunai yaramonic eguin ez deutzulaco. ¡Ay! cure esquerbagatasun guztiyac, zure pecatu guztiyac, ezcutuenerañoocuac aguertaco dira egun atan mundu guztiyaren aurrian!

2. Aguerturie bacocharen. pecatuac, aingueroiuac aldenduko ditue onac demgac gandic: imiñico ditue onac juezaren escomatatic, eta deunga guztiyac ezquerretatic. ¡Ce icarac, ce bildurrac emen!

3. Aldenduric onac deunguetatic, jueza daguan yarlecu eregui edoitic urtetan dau berba pozgarri batec, cein zucenduten dan escomatan dagozan autu guztiyacganantz: Erdue, neure aitaren bedeincatuoc, artu eguihue munduaren asieratic ona zuentzat prestauric daguan erreinua. Edoi atatic beratatic urtetan dau beriala trumonadia laco voz batec, zucenduric ezquerretarantz deungaelegana diñuana: zuace madaricatuoc betico sutara. ¡Betico madaricaciñoia, pecatu eguin eta ondu gura izan ez ebanarentzat. Betico bedeincaciñoia, peccaturic eguin beban, adiuntzaz eta demporaz penitenciya eguin ebanarentzat!

#### ERABAGUIYA.

¡O ama samur eta erruquiorra, ez naguizu iñosbere ichi ceure escutic! Nic yarri nai dct oraindissec juezaren escomatatic: ibilli gura dot onacaz: betico agur bat eguiten deutzet lagun charrai, olgantza eta batzar, arimia galdu eco

arriseuzcuac dirianai: nire egon lecuric gogocuena izango da elessia : elessia, nun vici dan gaur erruquiz beteric, juzgauco naben Jauna. *Gomuta zaite, etc.*

## AMAICAGARREN EGUNA.

### INFERNUA.

1. Ecin ondo ezagutu ciñaique, ene semia, cer dan infernua. Ondo daquizu infernua dala gaisto eta deungaz beterico presondegui bat , nun benguetan yaquen Jaungoicua , aguertuten dabela euracgan bere zuzentasun eta justiciya: penen aparteco eta berarizco lecua: iños amaituco ez dan Jaungoicuaren aserrriaren barru eta erdiya: lecu bat, ceñetan dagozan gach guztiyac, guichituteco, ez atseguiñaren apurric izateco icharopen bagaric: illuntasün, bildur eta icariaren lecua..... Baña, ¿derichazu ezagutu dozula onembestegaz cer dan infernua?

2. Liburu santuetan iracurten dirian, infernuco penen irudi bildurgarriyac,

dira chiquiyaguac, amaibaga chiquiyaguac, euren ez diranac baño. Ezagutu egiztu, al badozu pecatariyac Jaungoicuari eguiten deutsan irain ta ofensiaren anditasuna, eta orduan ezagutuco dozu infernuco penen anditasuna.

3. Entzun egiztu, ene semia: Jaungoico amaibagako bat, benguetan diar duana Jaungoicua leguez, bere aserre guztiyagaz perseguietan deutsana ofendidu eta lotsia galdu deutsanari, eta baliyetan dana bere escubide neurribagaco eta beticuagaz castiguetako pecatariya: orra infernua cer dan onduen yaquiteco bide ta modua.

#### ERABAGUIYA.

¡O neure ama; gauza bildurgarriyac edo izan biar dau Jaungoico artez, zu cen eta aserratuaren escuetan yausitia: Jaungoico baten escuetan, cein bengau gura yacon pecatuagaz ofendidu daben eta burla eguin deutsan zantarrari. ¡Ay nire zorigaistocua: bada sarritan ofen-

dido dot! Erreguiña guztiz altsua, erregutu eguiuzu nigaitic; eta alcantzau eguidazu graciya negar ugari eguiteco neurri pecatu eta gaistaqueriyacgaitic neurri viyotzeco mingoztasunagaz, eta amatau da uidala malcozco erreca eta ibaiyacaz, neurri pecatuacaz infernuan issiotu eta prestau dodan sua. *Gomuta zaite, etc.*

## AMABIGARREN EGUNA.

### INFERNUAREN PENSAMENTUA.

1. ¡Ay ene semia! Beste pena bat bere badaue oraindiño infernuan dagozanac: ezagutu eta yaquitia iñosbere iñosbere ez diriala sartuko ceruan ez da beguiyac ichi ta idiguiteco dempora labur bateraco bere: iñosbere iñosbere ez dabeela icusico Jaungoicua: araco Jaungoico ontasun amaibaguiagaz izatia emon eutsena; bere zanetaco odolagaz erosituzana; eta amodiyo neurribagaco battegaz maitetu cituzana, beragandie betio bota cituzan artian. Au da ascozaz

pena andiyago bat condenaduac gorputz eta arima igaroten dituezan guztiyac bat eguinda baño.

2. ¿Cer esango cenduque, ene semia, guizon bat gaitic, icusiric erretan daguala bera vici dan echia, eta urreratu yacon suac burua berotuten deutsala, ballego oian cirquiñic eguin baga eta artu bagaric neurriric suagandi igues eguiteco? ¡Alan pecatari asco, euquiric ur urrian infernua, eta utsa baliyo dabengauza bat izanic asco, eurac ara botateco, alambere vici dira bildur baga, quezea baga, gogoratu bagaric ain urrian dauquen arriscual ¡Ce eroqueriya!

3. Baña zuc, ene semia, entzun egui-zuz contuz ta arduraz nire berbac. Yatsi zaite sarritan ceure pensamentuagaz orain infernura, yatsi ez zaitezan guero egui-yaz eta benetan. Euqui eguizu ondo incauric ceure buruan infernua, eta gorroto andiyagaz beguiratuco deutsazu pecatuari, infernura eruaten dabelaco. Euqui eguizu ceure goguan ondo yosiric infernua, eta penitenciya ta lastasu-

nic andiyenac, chiquiyac, ariñac eta utsac irudituco yatsuz, guztiyac eguingo yatsuz errazac eta gozagarriyac. Pecatutic alde eraguiteco, eta obra on guztiyac eguitera ecarteco ez dago aculu zorrotzagoric infernuaren gomuta eta pensamentua baño.

#### ERABAGUIYA.

Neure ama, ez dot nai nic yuan infernura : neure vicitza guztiyan erabillico dot goguan infernua: mortificauco dodaz neure gorputzeco centzunac ; penau, eci eta bezauco dot neure araguiya; eta beti egongo naz guerra vici baten neure griña ta pasiño deungacaz. Sendatu eguzu nire uste eta erabaguiya, eta eguzu bete eta cumpliu daguidala imiñi artian neure arimia Jaungoicuaren escuetan azquenengo arnasiagaz batera.  
*Gomuta zaite, etc.*

## AMAIRUGARREN EGUNA.

CONDENADU BATEN BERE ARTECO BERBETAC.

1. ¡Gura dituzu. ene semia, entzun condenadu baten bere arteco berbeta garratz eta alperrac! ¡Erretan nago, diño, quiscallutzen naz gar vici oneetan, eta ez daucat noe emon nr tanta bat, ilteco ito aguiñian naucan egarriya; eta pena icaragarri oneec daruadaz neure erruz! Bai neu gura izan naz condenau; beguiyac zabalic yausi naz suzco leza onetan. ¡ Ez neutsen yaramonic egúin neure adisquidecn esanai, neure confesoren iracatsiyai, neure barruko quezcai: gortu nintzaquen neure vicitza guztian Jaungoicuaren erruquiyaren dei-yai, ceintzuecaz ciraustan yarri nendilla ceruco bidian!

2. ¡Oh certzec egutin cituzan Jaungoicuac ni salbetiarren! Osasuna, ondasunac, gachac, naibaguiac, cemaiiyac, esquintzac, deiyac, arguitasunac, sacra-

mentuac, neure lagun progimuen ejemplu onac, eta beste milla neurri artu cituzan bere ontasunac ni salbetiarren; eta nic guztira ichi nituzan beguiyac, gorroto izan neutsan argiuyari, eta orain aurquitutén naz illuntasun oneetan ondaturie! ¡Ay nire zorigaistocua!

5. ¡Ce erraz irabaci neiquian cerua! ¡Lehi benentsa nic lelenguan zorigaistoco pecatuko bide, lecu ta arriscu areri; alde egun baneu lagun char aregandic; egun banitz esan eustezan gauza onac; iraun baneu egun nituzan propositu santuetan, orain egongo nintzan ceruan zoriyonez beteric! ¡Propositu sendo batec, confesiño on batec idiguico eustezna Jerusalen ceruko atiac! Baña onezquero alperrie da; neuc gura neban condenau, eta nire zorigaistotasuna izango da beticua, nire ernegu ta amorrua izango dira beticuac!

ERABAGUIYA.

Ondo ezagututén dot, ene ama, Jauna

daguala beti deiyez nire arimaco atetan: orainchie eguiten deus'azun dei au, adierazoric condenadu baten bere arteco berbeta alperrae, izango litzateque niretzat ar bat, egongo litzaquedana beti beti usigui ta zulatuten neure erraiyac, ate-raco ez baneu orain euretatic neure ari-miarenzat oneraric. Nic erregututen deutsut, ama guztiz biguna, euqui nagui-zula ceure escutic, eta alcantzau dagui-dazula graciya, leiyal erantzuteco ceruco arguitasun guztiyi. *Gomuta zaite etc.*

## AMALAUGARREN EGUNA.

### CERUA.

1. Yaso eguiuz , ene semia , ceure beguiyac cerura, efa beguiratu eguiyozu Jaungoicuac , bere escubide neurribagiagaz al daben guztiya eguiten, atseguin, zoriyon eta gloriyaz bete eta aberastuteco bere ondasun neurribagacuacaz bere seme alaba maitiac. ¡Ay ce ederra dan vicilecu au! ¡Ce arguiya! ¡Ce andi-

ya. Eta jce gauza gozagarriya dan, ene semia, aingueru eta santuacaz egon, berba eguin eta vicitia!

2. Emen dagozanac daunque atseguin bat, naibaguiaren apurric izpiric bagacua; gozotasun bat, iños garraztu ecin leitequiana ; gloriya bat iños guichitu ecin leitequiana. ¡Celaco arguitasunacaz, celaco atseguiñacaz betetan dan arimia!

3. Jaungoicuac yarlecu goratu eta eder baten, bere autu eta adisquidiac milloeca ingueruan dituzala, aguertuten deutse guztiyai bere becoqui itzalez betia. Celan dan bat bacaraa izatez, celan dirian iru persona, eta bere onaidade guztiyac. Baquezco ibai batec ingurutzen ditu guztiyac ; dagoz atseguiñezco erreocabaten ondaturic; urreraturic Jaungoicuaren bularrera, dagoz beti edaten iños agortutzen ez dan gozotasunezco iturrico urac. ¡Ce zoriyona! ¡Ce dontsutatasuna!

ERABAGUIA.

¡O ama, ce andiya dan niretzat gor-

deta daguan sariya! Nic irabaci gura dot costa daquidana costadaquidala. Nic iminten dodaz, neure ama, zure escuetan neure vicitzia, neure osasuna, neure indarrac, eta nazan guztiyau, zuc egun daguizun nigaz eta nire gauza guztiyacaz onduen dana Jaungoicuaren gloriyaraco eta neure salbaciñoraco. Betoz nequiac, estutasunac, naibaguiac, nai dozun guztiya, ene ama eta nosbait quejetan banaz, ez yaramonic egunin nire quejai, eta indartu naguizu, şarturic sendo neure arimiaren barru barruan, eta diadar andiyagaz esanic berba oneec: Cerua, gloriya, atseguiñezco lecua, betico salvaciñua. *Gomuta zaite, etc.*

## AMABOSTGARREN EGUNA.

### BETICO IRAUNA.

1. Laburrac dira, ene semia, guztiz laburrac, guizonaren egunac lurraren ganian: arin dua bere egunen azquenengora; yaiyo ta beriala dogo sepulturia-

ren ertz eta egalian: guichiyen uste dabenian, pausu bacar bategaz igaroten da betico irauneco campo zabal eta neurribagacuetara.

2. Baña, ¿adituten dozu, ene semia, cer da betico irauua? Ez da betico irauua urte errescada luce bat, ez: da contau eta gueitu al leitequezan urte guztiyac baño gueiyago. Da beti bat iños amaitutzen ez dana. Ez dago beticoiraunian leenic, ez gueroric; guztiya da oraingua, cegaitic ece ez dago beratan amaitu leitequian zatiric. Ez dago berbaric bere iraupena andierazo leiquianic: ez irudiric bera cer dan ezagutn eraguin leiquianic.

3. ¿Ce dozu ezagututene emendie, ene semia, atseguin chiqui baña beti irauten debenac izan biar dabela atseguin amibaguiac bere iraupen eta beticotasunagaitic; eta miñic chiquiyen, baña beti irauten dabena, dala amaibago miñ bat? Bada, ¿cer izango da egotia beti onera eta atseguin guztiyen artian Jaungoicuaren aurrian? Eta, ¿cer izango da egotia beti infernuan pena modu guztiyetan?

¡Eternidadia! ¡beticoirauna! loh, ce pensamentua!

ERABAGUIYA.

!O neure ama guztiz maitegarriya! alcantzau eguidazu graciya gueldituteco ueure ariman ondo incau eta yosiric beticoiraun eta eternidadiaren gomutia! Baldin nosbait nagitu edo epelduko banintz gauza onetaraco eguiyu beriala urten daguiyala nire barrutic diadar onec: Biar eguindaigun eternidaderaco, eternidaderaco. *Gomuta zaite, etc.*

AMASEIGARREN EGUNA.

JAUNGOICUAREN SEMIA GUIZON EGUITEN DA.

1. Badaquizu, ene semia, Adanen pecatuagaitic guelditu cirala guizon guztiyac demoniñuaren mempe ta catigariyuan eta betico eriyotzara condenauric. ¿Noc pagauco deutsa Jaungoicuari pecatuaren zorra? ¿Noc urratuco ditu euren catia zalac? ¿Noc imiñico ditu ce-

ruraco bidian? Neuc, diño Jaungoicuaren seme bacarrac, neu yuango naz eurac salvatera. Alabau, bedeincatu, eta pocez cantau eguiyu, ene semia, zure salbaguilliaren erruquiyaren gomuttiagaz. ¡Ah Jaungoicuaren semia guizon eguin zan, Jaungoicuac artu eban mendeco baten irudiya, eguiteco guizonacaz beste aimbeste Jaungoicuaren seme!

2. Cer da guizona irudita Jaungoicuagaz, ceruco eta lurreco erreguiagaz, gauza guztiyen asiera eta azquenagaz? ¡Ay ondar garau bat dana, ceru zabalen albuau; iñontz tanta bat dana, ichosoco urguztiyeñ albuau; eta oraindic guichia-  
go, amaibaga guichiago, bada ez dago irudi ta bardincuntzarie Jaungoicuaren ta guizonaren artian. ¡Ah! eta Jaungoi-  
cua eguiten da guizon!... ¡Beticua egui-  
ten da ilcor, eta yarten da guizonaren argaltasunen mendian!... ¡O mirariya!  
¡O amodiyua!

3. Ene semia, ¿celan ez zara arrituco ceure Jaungoicuaren ontasunaren go-  
muttiagaz? ¡Celan ez dozu maitetuco ceu-

re indar guztiacaz cerre Jaungoicuaren ontasun, gura izan ebana beeratu, gura zan ebana ecereztu, yatziric mendeco bat eguiñic guelditutera, yasotiarren zu bere seme maite baten dignidadera? Begoz, ene semia, zure bularrian issioturic ezaue-ra eta esquer onaren gar viciyac.

ERABAGUIYA.

¡O ama! nire viyotzeco gurari guzti-yac, nire arimaco iñdar guztiyac ez dira asco ta diun, esquerrac emoteco aimbes-te erruqui eta ontasun ain andiya gaitic! Emon eguiyozuz zue nire ordez zor yaco-zan graciyac. Nire viyotzac esaten deust, ene ama, ez dabela onezquero beste gauzaric maitetu gura, nire amodiyoz guizon eguin zan Jaungoicua baño: ¡Jaungoico guizon eguiña! nic izan gura dot guztiyau zuria: erregututen deutsut nuere erraiyetatic, eguin daguizula zu-ria, guztiz eta osaro zuria, nire viyotz errucarriya. *Gomuta zaite, etc.*

## AMAZAZPIGARREN EGUNA.

### JAUNGOICUAREN SEMIAREN YAYOTZIA.

1. Jaungoico bat ume eguiñic, lasto batzuen ganaian echunic, jce ieusquizun miragarriyal Emon leiquezu iñoc, eae semia, iracutsi arguiyagoric; aurquitu baeiñaique egempla viciyago eta eraguillagoric, sinistu eraguítoco ceruraco bidia dala penitenciyaco, griña gaituen mortificacinoeco, eta ceure borondatia ucatnteco bidia? Guztiyoen Jaunda emen guztiyoen irudi ta ispilla; iracasla bat, guztiyo berba eguiten deuscuna, eta iñoc achaguiyaric, ez errepaurie, imiñi ecin leiquiyona.

2. Yayo baño lenago lurrian, prestau zitzuzan gauzac, igaroteco moduan neque, lan eta humillaciñoiac, ceinzuen mendian yarri gura izan eban. Munduan sartu orduco aurquituten da pobreza, ezeuqui eta penetan: bere gorputz bigun eta samurra dago icara bere

beguietatic dariyoz negar ampuluac, jay, negar malcuac, bai! Nic icusten nebanian negarrez Jaungoico bat, igarten neban urratuten yatala neure viyotza. Iruditu eguizu norbait aurquitu leitequian egoeraric necatsu eta larrituena, ecerchu bere baga eta mundu guztiyac ichita; onelacuan beguitandu eguizu zure salbaguillia.

3. Ay ene semia, ezagutuco bacendu ondo ezcutapen ta ministeriyo arriagarri au, jcelaco bildur eta icarria emongo leusquizun darnazun vicitza atsegumtsu eta ereguz betiac! Zuc ecin igarro dozu onian norbaitec esan daguizula zure gogoco ez dan berbachu bat: ozta ecetan mortifquetan zara: ez dituzu ichi gura munduko olgantza zoruac: billatuten dituzu achaquiyac penitenciyaric ez eguiteco. ¿Oraindic iraungo dozu ceure us-te eta erechi eruetan ceure gogoraciño alperretan, icusiric Jaungoico bat asca baten etzunic, ume oiyal zantar batzuetan baturic icara ta negarrez.

ERABAGUIYA.

Neure ama, nic oben eguiten dot eta bigunduten naz icusuric munduco Jaunac emoten deustan egemplua; ume eguiñic, abere eche baten yaiyoric, eta asea baten etzunie. ¡O ume Jaungoicua, ce ederra zarian! ¡Ce baliyo andicuac dirian zure beguiyetatic yosten dirian perlac. Ecin ichi neiquezu nic maitetu bagaric: eta icusuric zagozala penetan; beguiraturic ce vide daruazun mundu onetaco sartu eran, nic bere yuan gura dot neque penitenciya eta mortificaciñoco bide ciorretic. Escatu eguiyozu, ene ama, ceure seme Jaungoicuari, ceuc eguin eta ceure ugats gozuagaz aci cenduan seme orri; escatu eguiyozu arren izan dedilla sendua nire erabaguiya eta iraun daguiyala beti. *Gomuta caite, etc.*

## AMAZORTZIGARREN EGUNA.

### JAUNGOICUAREN SEMIAREN CIRCUNCISIÑOIA.

1. Ce laster asitendan, ene semia, bere odola isuri eta botaten zure salbaguillia! Yaiyota zorzarren egunian izan zan circuncidadua. Jaungoicuaren semiac gorde gura dan beretzat eguiña izan ez zan legue bat, eta emoten dau bere gorputz eguiera penazco bateraco, eracusteco zuri celan gorde biar dozun Jaungoicuaren leguia, eta celan sinistu biar dituzun fediae eracusten dituzan eguiyac; celan gorde biar dituzun ceure gorputz eta arimaco indar guztiyacaz bere aguiudu santuac, eta sendatu alcantze-taco virtute guztiyac. ¿Ce achaquiya imiñi ciñaique alan ez eguiteco, icusiri Jaungoico batec emoteu deutsun egemplu arrigarriya?

2. Jaungoicuaren semiac artuten dau circuncisiñuaren bitartez pecaturiyaren marquia: izanic santutasun eta garvita-

sun amaibagacua, artuten dau pecatuan-  
ren lotsariya; eta *¿zue*, ene semia, alde  
eguin gura deutsazu lotsari oneri, iza-  
nic zarian leguez pecatari errucarri bat?  
Aguertu eguiuz, ene semia, aguertu  
eguiuz humiltasunagaz eta arguiro con-  
fesiñoco sacramentu santuan ceure go-  
goraciño ezcutu eta lotsagarriyac, ceure  
gurari bide bagacuac, ceure griña ta  
pasiño zatarrac. Aguertu eguiyozu ceu-  
re confesoriari ciatz, achaquiya eta to-  
lesbaga ceure barruko ezcutuen eta is-  
silen guztiya, guichitu bagaric, inguru  
bagaric eta iñori errua ezarri bagaric, ez-  
pada ceuri bacarric.

**3. Circuncisiñoian artu eban Jaun-**  
**goicuaren semiac Jesusen icena; eta icen**  
**onetan daucazu zuc, ene semia, biar do-**  
**zun guztiya, goituteco munduaren, de-**  
**monioaren eta arguiyaren esetsi eta ten-**  
**taciño guztiyae.** ¡Ah, deituten badeutsazu  
fede vici bategaz, itzal eta debociñoiagaz  
¡ce laster izango dozun bere laguntasuna!  
Jesusen icen gozuagaz eguin zituezan  
apostoluac arimetan alaco irabaciyyac;

milloe martiriyac goitu cituezan erregue ta aguintari deunguen indarrac; eta doncella gazte ta samurrac burla eguin eutsen borreruen gogortasunari, gordetan ebela garvitasuna nasaiqueriyaren erdiyan Jesusen icen gozuac bete ditu ceruco arguitasunez eriyotzaco queriza ta illuntasunetan egozan erri ta erreinuac; eta basamortuac bacartar eta penitentez. Eruan eguiyu, ene semia, eruau eguiyu icen gozua sendo ta gogor yoseric ceure viyotzian; bai ta bere deitu egniyozu sarritan darabilzula ceure miñ, ao ta ezpanetan.

#### ERABAGUIYA.

¡O neure ama laztana! nic sinistu, adorau eta confesetan dot Erromaco elessa ama santiac sinistu eta confesetan daben guztiya, eta gura dodaz bete eta gorde ciatz eta osoro bere aguindu guztiyac, Jaungoicuaren leguecuac, eta neure estaduko obligaciño guztiyac: baita bere yarraitu ebangeliyoco irac-

tsi borondatezcuaia, aldodan bestian. Erabaguiten dot aguertutia ciatz ciatz eta arguiro arguiro neure confesoriari gogoraturten dodazan pecatu guztiyac. Eta onetaraco guzti onetaraco gura dot incau eta yosidedilla sendo eta gogor nire viyotzian Jesusen icen gozua, eta esan auagaz ordi guztiyetan. ¡Ay neure ama, eguizu arren Jesusen izen gozua neure ezpanetan dodala imiñi daguidala neure arima Januaren escuetan neure eriyotzaco orduan! *Gomuta zaite, etc.*

## EMERETZIGARREN EGUNA.

JAUNGOICUAREN SEMIAREN AGUERTUERIA, EDO

ERREGUEEN EGUNA.

1. Yayoten daneco munduko salbaguillia, eracusten dau beriala bera dala ceruetako eta lurreko Jauna: etzunic dago asca baten, eta Herodes dago bildurrez eta Jerusalen guztiya beronegaz: oraindik ume zapiyacaz loturik dago,

eta orra nun aguerturie ceruan arguitasunen miragarriz beterico izar bat, dacz eguzquiyaren urteera aldetic iru guizón, escubide andico eta yaquintsu, esquinzari eder ta aberatzacaz bera adoretara. ¡Ah, ez dabe oneec atzerapenaren apurric iminten Jesusgana yuateco. Icussen dabe izarra, arguitaten ditu Jaungoicuac euren barruac, ete beriala yarten dira bidian bere billa yuateco. ¡Oh, cembañ bidar yarten dan zure aurrian egemplu oneen, confesore Jaunaren iracatziyen, eta beste milla barrutieo eta campotico deien izar arguiya; eta zue, ene semia, ozta cirquiñic eguiten dozn, ozta aurreratutzen dozu pausu bat cerurako bidian!

2. Lecu urriñetatic, izar baten argui bacarrera, arriseuz beterico bideetatic, datoñ erregue oneec Belengo esquepera, lasto ganian etzunic daguan Jaungoico bat adoretara eta zue, ene semia, vici zarian orrec fedeco egun an diarren egüerdiyan; amairu guizalditaco guizonac ezaguetu eta adorau ezquiero;

milloe bat elessaco iracaslac adierazo ezquero bere jaungoicotasuna , eta antitasunac ; eta milloiac martiric emon ezquero euren odola bera confesau eta adoretaco , ¿ez dozu visitauco sarri altaraco sacramentu santuan , ez zara yuango bera adoretara , eta artutera ceure bularrian devociño samurragaz , eta sartutera ceure viyotzaren barruan ?

3. Ez dozu icusten , ene semia , celan iru erregue Maguac duazan Jaungoico yaiyo barriya adoretara , yaramonic eguin bagaric mundutarren esamesai? Jerusalengo uri andiyaren erdiyan , eta Herodesen ta bere aguintari ta andiqui guztiyen aurrian itanduten dabe sendo ta bildur baga. ¿Nun da oraintzuan yaiyo dana , ceñen izarra icusi dogun eguzquiyaren urteera aldian ¡Ah! Herodes aserratu , nai icaratu dedilla; nai Sinagogua escandalizau dedilla , nai charto esan daguiyala ; ecerbere ecerbere ez da duin epelduteco Jesucristoren oñetan auzpaztutera arin daruazan gogo ta debociña. Eta ¿zuc , ene semia ,

izan guraco dozu ain erua, cein da mundutarren esamesen bildurraga.tic, & *cer esango dabe?* uts bat gaitic, ichico dituzun eguin baga cristiñau batec eguin biar dituzan gauzac, edo beste debocionta gauza onac? Onelacoric eguiten dabena ez da cristiñauaren icenaren duin.

ERABAGUIYA.

Autortuten dot, eñe ama, onera guztiz guichi atera dodala orainartian, inguratuten nabeen egemplu oneetatic, emoten deustezan iracatsiyetatic; eta Jaungoicuac bialduten deustazan ceruco arguitasunetatic. Autortuten dot, pausu bi ez emotiarren ichi dodala sarritan visitau bagaric altaraco sacramentu santua, mecia entzun bagaric, confesau eta comulgau bagaric. Autortuten dot izan nazala cristiñauaren icenaren duimbaguia, bildurti eta coldar bat; baña oraindissec yuan gura dot arin graciayac sacatuten naben lecurantz virtuteco bidetic; botar biar dot naguitasuna;

ez deutset yaramonic batbere eguingo mundutarren barriqueta eta zoraqueriyai. Ama neuria , eguizu izan dedilla sendo tı eraguillia nire erabaguiya. *Gomuta zaite etc.*

## OGUEIGARREN EGUNA.

### JESUSEN PREDICACIÑO ETA MIRARIYAC.

1. Iruditu zaite , ene semia , vici zariala araco demporan , ceñetan Jesusec , aciric eta guizon eguinic euqui cituzan artu emonac eta berba eguin eban guizonez, eracusten eutsela evangeliuaren bitartez ceruetaco erreñuraco bidia. Beguiratu eguiyozu guizon Jaungoico oneri dabillela Galileatic eta Palestinaco beste provin ciyetatic. Cerua ta lurra dagoz adi eta beguira beronen pausu guztiyai: Aita beticuac darraico lecu guztiyetara pocezco beguiyacaz : ainguerauc mirarituri , dauquez beragan incau eta yosiric euren beguiracunac , iñosbere aldendu bagaric: erriyac, erreguiac, ya-

quintsuac berba eguiten dabe zurturic bere eguite arrigarri eta bere mirari ugariyac gaitic. Bere beguiracune bat, bere arpegui guztiz ederrian argui eguiten dabeen Jaungoicototasunaren arguitasunagaz batera , asco da eracarteco beraganantz gente pilluac eta euquiteco berari lotuta icusi ecin leitezan catiacaz. ¡ Adorau eta maitetu eguizu viyotzetic, ene semia , ceure Jaungoico eta salvagillia ?

2. Erri guztiyetatic dua bere mesdiac eguinaz guizonai : bere escu erruquiyac eguiñac , duaz zabaldu eta ereiñaz graciya eta mesede genero ta mueta guztiyac : bere ezpanac diñuez betico vitzaco herbac, zabalduteco atseguiñezco corront, sicututen dituzanac penaz eta naibaguez egozanen negar malcuac ; berac vitzuten dituzan illac , zuenduten dituzan gorputz oquerrac , arguituten dituzan ichuac , eta parcaturic gueldituten diran pecatariyac , esaten deutse topetan dituezan guztiyai: *Ygarla andi bat aguertu da gure artian.* Me-

*sias aimbeste guizaldi lenago adierazua,  
ain gura zana, etorri da.*

3. ¿ Ez dacutsu . enè semia , cein arin duazan gente pilluac , celaco gurariyac dauquezan bera icusteco? Beragana urreratuteco zoriyona dauqueenac , arrituta gueldituten dira bere escubidiagaz; bere anditasunaren arguitasunagaz; bere arrera bigun ta abegui samurragaz, bere ontasunagaz, eta bere berbeta gozuanagaz. Erriyetan icusi ecin izan dabeenac, duaz arin eremuen barrura bera billatutera; eta ain da andiya inguratuten daben gente pillua ece , ascotan ecin eguin dau pausu bat ez aurrera , ez atzera. Icusi gura dabeenac erdiyan artu eta estutuko ez badabe, arnasa artuko badeu eta predicauco badeutse , sartu biar dau chalupa baten : descansauco badau pisca bat bere yarraitzallacaz , yuan biar dau bacartadera. Edonun aguertu dedilla, beti dago gendedi amaibagaco batez inguraturic, ecin aldendu dala ez egunaz, ez gabaz.

ERABAGUIYA.

¡ O Andria, ni arrituten naz neure salbaguilliaren anditasunacaz ; eta auzpez imiñiric neure arpeguiya lurrian, adoretan dot, eta deituten deutset ainguerauia, eta guizonai , ceruai, eta lurrari eta iza-tia dauquen gauza guztiyai, dato zala eta yardun daguiyela bera adoretan iños aspertu bagaric. Bere ontasunac conortbagatuten nau ; bere biguntasunac zoratu eraguiten deust ; eta onezquiero , ene ama, ecin ninchaquiyo ni yarqui aimbes-te tiracadari. Oraindissec naz ni guztiyau Jesusena. Neure salbaguilla maitegarriya , ez banaz ni izango guztiyau zuria, ez dot vici nai : baldin iños ofendiduco baza itut, orainche ill gura dot. ¡ O Mari-ya , amodiyo ederraren ama ! eguin na-gizu guztiyau Jesusena: escatuten deu-tsut, ceuc deustazun amodiyuaga itic.

*Gomuta zaite etc.*

## OGUETABATGARREN EGUNA.

JESUSEN TRASFIGURACIÑUA.

1. Egun baten yuan zan Jesus bere yarraitzalla maiteenetatic irugaz , Pedro, Santiago, eta Juanegaz , Taborco mendi altura, eta euren aurrian artu eban beste irudi bat. Bere jaungoicototasunaren arguitasuna eta bere arima zoriyonecuaren gloriya aguertu eta icusi cirian bere gorputzian. Bere arpeguiya guelditu zan arguiyago eguzquiya baño ; eta bere soñecuac zuriyac edurra leguez ; baña zuritasun bat ain miragarriya ce , ez munduan dago , ez eguin leiteque beralacoric. Moyses eta Elías aguertu cirian ustebaga, eta berba eguiten eben Jesusegaz bere pasiñoiaren ganian. Pedroc bere senetic urtenda, icusiric aimbeste gloriya, esan eban diadarrez , cer esaten eben ez equiyala , eta azturic beragaz eta bere lagunacaz : *Jauna ondo gagoz emen: eguin daguiguzan iru vicilecu: bat zu-*

*retzat, beste bat Moysesentzat, eta bestia Eliasentzat.* Odei argui batec estaldu eban mendiya , eta odeiyaren barrutic urten eban berba onec: *Au da nire seme guztiz maitia: entzun eguiyozue.* ¡ Ah neure semia ! Jesuseri entzuteco arguinduten yatsu, Jesuseri. Jesus da mundu guztico iracaslia. ¡Zorigaistocuac bere berbac entzun nai ez dituezanac ; baitabere zorigaistocuac entzun arren bere esanac, eguiten ez dituezanac !

2. Trasfiguraciñua da , ene semia, ceruco anditasunaren , eta berari yarraituteco dirautsun, Jesucristoren anditasunen irudi bat. Bere arpeguico arguitasunac ezagutu eraguiten deutsuz celanbait, bere Jaungoicotanaren árguitasun amaibagacuac : bere soñecuen zuritasunac , bere arimiaren ta gorputzarena, mundu guzticuac bat eguinda baño andiyagua. Taborco mendi altuac adierazoten dau, cein andiya d n Evangeliyuac bere yarraitzallai escatuten deutsen ontasuna : apostoluac ezcutau cituzan odei arguitsua , da gloriyaco argui , iñor ur-

reratu ecin lequiquiyonaren queriza bat: Pedroren guelditutiac icaraturic eta berre senetic urtenda , adierazoten dau, zoriyonecuen atseguin eta dontsutasun, iñoc aditu ecin leiquian eta beticua: azquenie odeitic urtetan daben berbiac adierazoten dau Jesueristoc daucan es cubidia iminteco bere legue barriya. Eta zuc , ene semia, ¿ez ete deutsazu yarraitu guraco ? ¿Lotsatuco ete zara yarraituten aguintari ain andiyari ? ¿Ce onra andiyagoric Jesucristoren soldadu izatia baño , eta beragaz orain biar eguin eta necatu, beragaz batera guero gozatuteco ceruco gloriyan ?

3. Beguiratu eguizu ondo, ene semia, Jesusec autu cituzan lécu eta demporara beste irudi bat artuteco ; lecua da mendi bacar eta altu bat ; demporia da erregu eta oraciñoco demporia. ¡ A y ! ez deutse Jesusec aguertuten arimai bere anditasun eta arguitasuna munduko olgantza zoruen lecuetan , ez ardura bagago vicitza baten ots eta zaraten artian: bacartadia da lecua, ceñetan arguituten dituzan arimac: erregu

eta oraciñoia da , nun emoten deutsen beste irudi bat, quenduric munduko gau-cetaraco gurariyac, zaletuten dituzala ce-rucuetara. Bacartadian icusten dabe arima onac, ce gozua dan Jauna : an ezagutu-ten dabe Jesucristori yarraituten deutse-nen vicitzia dala eguiyaz curutze bat; baña curutze bat, Jaunaren laguntasunac gozatsua eguiten dabena , eguiyaztuten dala berberac esan ebana: *Nire buztar-riya da leuna , nire carguia ariña.* ¡ Ce desbardiñac dirian , ene semia , aragui-yaren atseguiin labur eta abereen guisa-cuac , graciyac Jaungoicuaren semeen arimetan sortuten dituzan atseguiin egui-yazco eta benetacuen aldian ! Deungac oraindissec darue euren bularrian infer-nu bat ; onac darue euren viyotzian ce-ruco atseguiñen asiera eta áciya. Maitetu eguzu , ene semia, erregu eta oracinua; billatu eguzu ceure arazu eta lanac ichi-ten deutsuen bestian bacartadia.

ERABAGUIYA.

¡Ce miragarriyac dirian, ene ama, Jesusen anditasunac, eta ce gauza ederrac esaten deuscuzan Aita cerucuac bere gogoco seme onen escubide eta yaquitiriyaren ganian ! Nic sinistulen dot berac eracutsi euscun guztiya , eta eracusten deuscuna elessa santiaren bitartez ; bete eta cumplidu gura dot pocic, bere legue santu eta bigunac aguinduten deuscun guztiya. ¡O ce zoriyona , euq'nitia Jesus iracaslatzat ; izatia bere gorputzaren zatiya eta bere soldadua ! ¡ O Jesus ! nic yarraituco deutsut zabiltzan lecu guztiyetatic ; lagunduko deutsut calvariyoraño; eruango dot zugaz curutzia ; anche ilgo naz escu eta oñac untzez yosita. Graciayac emoten dituzan gozotasunen tanta batec gueiyago poztuten nau, gueiyago indartuten dau nire viyotza , munduko atseguin guztiyac baño. ¡ Munduko olgantza eta batzarrac, cegorrotogarriyac zarien ! Zuec ez deustazue beste gauza-

ric eguin , ezpada zoro biyorturic imiñi dempora apur baten, eta pena u gau osuetan. Aurquitu dot, zoriyontasuneco iturriya: arima onen laguntasunian , bacartadian , errezu eta erregüetan , Jesus curutzian yosiyaren irudi baten oñetan. Jesus beste irudi bat artuta guizonen yanari eguinic daguan altaren aurrian; an, an dagoz nire viyotza betetan dabeen eguiyazco atseguiñac. ¡O Mariya! Eguizu arren beti iraun daguiyela nigan gurari oneec. *Gomuta zaite, etc.*

## OGUETA BIGARREN EGUNA.

### JESUS ALTARACO SACRAMENTU SANTUAN.

1. Urrian eucanian Jesusec, pecatariyac salbetiarren vicitzia emoteco eguna, ichi gura izan eutsen guizonai, bere amodiyo beti dirauanaren ezaugarri bat. Penaric icaragarriyenen eta iños entzun ez dirianen artian vicitzia emongo eban egun icaragarri aren vezperan, urraturic bere amodiyo amaibaguiaren esi eta mugac; ba-

liyetan zala bere yaquituriya neurribagako eta escubide altsuagaz guztiya agortu eta ecereztu arteraño, iminten dau lurrian bere erruquiyareo yarlecua, graciya guztiyen iturriya, gueldituten da, diñot, berbera altaraco sacramentu santuan ! Sacramentu santu onen bitartez emoten yaco Jesus guizon bacochari oso osoric, emoten deutse bere gorputza, bere ariamia, bere odola eta bere jaungoicototasuna; eta artutten daben bacocharac dau bere berria eguiyaz eta benetan Jesucristo guztiya. ¡ Jaungoicua altaraco sacramentu santuaren bitartez eguiten da bene benetan bacocharena !

2. Ondo prestauta comulguetan zarian bacochian, ce gauza miragarriyac eguiyaztutene dirian zure izate guztiyan ! Jaungoicuac barritzetan ditu zure arimiaren barruan, Israeltarrai eguin eutsezan mirari guztiyac. Yaten dituzu, zu infernutive libreiarren esquiñiya izan zan bildotsaren araguiyac ; edaten dozu eta gozaro ordituten zara, arima oneen egarriya quenduten daben odolagaz ; artutene

dozu ostatuz ceure bularrian Jaungoicua bera; zure gorputza iratsi eta batuten da, nire erraiyetan Espiritu Santuac eguin eban gorputz adoragarriyagaz; zure ari-mia , araco arima guztiz on , zu santuteco aimbeste igaro ebanagaz: zure aua , araco ao eta ezpan Jaungoicozco, aimbeste berba eder eta gozagarri esan cituezanacaz zu arguitu , eta zuri iracatsiyac emoteco; zure viyotza, araco viyotz amodiyuan issiotu , milloe arima maite-tzallaren ondoren bere senetic urtenda dabilenagaz ; eta orduan ucututen deutsezu, ene semia, salvaguilliaren zauriyai eurai; araco zauriyai , ceintzuei dariuezan graciya guztiyac , eta egongo dirianac beti idiguiric , euren eriyua iñoz agortu bagaric. Artu eguzu bada , ene semia , Jesus sacramentadua fede bici bategaz, itzal andiyagaz, amodiyo goritu eta quiscalduagaz, eta sarritan.

3. Jesusec gura izan eban euqui egui-yela guizonac, Jaungoicuaren diña zan esquintzari bat, beragaz esquerrac emoteco beragandic artu dituezan mesede

neurribagac gaitio eta beragaz emote-  
co irubatasun guztiz santuari, yaoca-  
zan adoraciñuac; baita bere gura eutsen  
ichi esquintzari bat, baquetuteco euren  
aita cerucuaren aserria ; eta sacerdote  
Jaunac esaten dabeen mecia esquintzen  
yaco onelan egun guztiyetan eta baco-  
chian, Calvari yoco mendian bein esquiñi-  
ya izan zana berbera. Mezaco esquintzari  
antuagaz emoten yacoz Jaungoicuari  
esquerri osuenac, eta irubatasun guz-  
tiz santuari zor yacozan adoraciñuac.  
Jaungoicua esquintzen yaco Jaungoicua-  
ri. ¡ Ah , ene semia , bacenqui ceimbat  
baliyo daben meza batec , edoceimbere  
neque igaroco cenduque, egunoro entzu-  
tiarren ! Eta , ¡ cein ondo entzungo cen-  
duquian !

ERABAGUIYA.

¡ Oh ce gozua, ce erruquierra, ce ona,  
ce prestua dan Jauna guretzat ! Nori iños  
otu , eta burura etorri eiquiyon onelaco  
asmoric ? Jaungoico bat guizon eguin, eta

Jaungoico guizon eguin bat yarrí guizonen yanari eguinic! Serafin santuac, ez deust damu emoten ez euquitiac zuen gloriya; baña damu emoten deust ez euquitiac zuen garrac , zuen caridadiaren berotasuna, zuen amodiyua! ¡O amodiyua , o Jesus! Neure ama , eguzu arren eldu naitiala comulgnetara biar dirian prestaeracaz eta albait sarriyen ; fede vici bategaz, barruko eta campoco modu onagaz, goraturic nire bularrera datorren Jaungoicuaren anditasun eta itzal amaibaguia! Eguizu ezagutu daguidala ondo Jaungoicuaren amodiyo eta caridadia , eta nire ecereztasuna. Onelacosse prestaera- caz gura dot , ene ama , entzun egunoro meza santua. *Gomuta zaite. etc.*

## OGUETA IRUGARREN EGUNA.

### OLIBOEN HORTUA.

1. Imiñi eguizuz , ene zemia , ceure ezpanac salbaguilliaren iturriyetan : erabilli eguizuz goguan bere penac , bere

naibaguiac, bere lotsariyac; emen edango dituzu vicitzaco yaquituriyaco ur zurrutada andiyac. Sartu zaite gaur Jetsemanico hortu santuan ¡Oh ce icusquizuna ! Beguiratu eguiyozu Jesusi, triste, naibagueturic, iceraturic eta estutasunic andiyenian. Arpegui zurbilduagaz, negar malco eriyuan, cizpuruz ta zotinca, berba eguiteco ozta adoreric daucala; belaunac eta gorputza icara dituzala, urreratuten da bere yarraitzallac gana, eta dirautse : *Triste dago nire arimia eriyotzaraño.* ¡ Ce icusgarriya ! Ceruco arguitasuna dana, tristetuten da; betico muruen Jaungoicpa, aldatu ecin leitequiana, dago icara; eta estuturic, larrituric dago icerdiya dariyola, eta ¡ o pena ! bere odol guztiya dabilco ichaso aserratu bateco olatuen guisan batera eta bestera; eta ecin barruan egonic, urteteten deutsa campora, bustiten deutsaz bere soñecuac eta yausten da lurrrera tantaca tantaca.

2. Ez eguizu uste izan, ene semia, urrian daucan eriyotza mimbera eta lo-

tsagarriyaren gomutiac iminten dabela Jesus maitia egoera larri onetan. ¡ Ay, ez! Guizonen pecatu eta gaistaqueriya guztiyac yarten yacoz viciro bere aurrian. Ezagututen dau ondo , pecatuac Jaungoicuari eguiten deutsan irain eta ofensia, eta oneec zaurituten dabe bere vi-yotz naibaguetua. ¡ Eta guizonac betico galduco diriala! ¡ Ay au penia! ¡ Ni ilten naz , diño ; ni ilten naz ; eta alambere asco dira nire odolagaz baliyau guraco ez dabeen guizonac ! ¡ Ni ilten naz , eta igaro arren nic aimbeste neque eta penac, asco galduco dira ! Ni ilten naz ; eta alambere infernua beteco da esquercharreco guizonez ! ¡ O ce caliza garratz eta mingocha !

3. Jesusec erregututen deutsa bere aita beticuari, eta yaiguiten da oraciñotic gozotasun eta indarrez beteric , emoteco vicitzia pecatariyac salbetiarren. ¿Gura dituzu aurquitu, ene semia , atseguin eguiyazcuac mundu onetaco nai-bagueetan ? Ez eguiuz billatu guizonen artian , billatu eguiuz Jaungoicuagan.

Guizonen arteco atseguiñac dira erreca-chu chiquien antzecuac, ceintzuec guel-dituten dituzan edocein eragozpenec , eta beste bide batetic yuan eraguiten deu-tse , eta azquenic pisca baten ibilliric, agortuten dira ; baña Jaungoicuac bial-dutten dituzan gozotasunac dira , goitic bera indarragaz datozañ ur corrond, ecec guelditu ecin leiquezanac, eta euren ya-torriya ez da iños agortuten. ¿ Gura do-zuz goitu sendotasunagaz , Jaungoicua-ren serviciyuan batzuetan izan oi ditu-zun eragozpenac ? Zuaz arin oraciñora: oraciñuan aurquitu cituzan Jesusec in-darra eta sendotasuna: oraciñuan aur-quituco dituzu zuc bere.

#### ERABAGUIYA.

Ez gueiyago esquerbagatasunic , ene ama ; nic gorroto deutset pecatu guz-tiyai , eta lenago gura dot milla bidar il, bein bacarric esquercharrecua izan baño, nire salbaguilliac nigaitic igarotaco ne-que eta eriyotzara. Orain artian naiba-

gueric chiquienac aspiratuten izan nau, eta Jaungoicua servietaco aurquitu dodan eragozpenic ariñenac, bildurtu; baña badaquit orain nora zucendu ; aurquiteco atseguiña, indarra, eta sendotasuna. Auzpaztuco naz Jesusegaz , erregutuko dot Jesusegaz. Alcantzau eguidazu , ene ama, graciya, ezagututeco ondo ondo oraciñuaren baliyo, premiña ta indarra, eta al dodan guztiyan eguiteco.

## OGUETA LAUGARREN EGUNA.

CELAN SALDU EBAN JUDASEC SALBAGUILLIA,  
ETA ARTU EBAN PRESO.

1. Ezagutuko dozu, ene semia, Jesusen pasiñoco pena, naibague eta mingoztasun guztiyen artian , damuric gueiyen emon eutsana , eta bere viyotzian zauriric andiyena eguin eutsana , izan zala Judasen salduqueriya. Bere areriyuac madaricatutia Jesus , igarocarriya zan; baña bere yarraitzalla bat , bere adisqui-de bat, bere Apostolu bat eldutia , diru

pisca batgaitic bera salduterañoco gais-taqueriya ain andira!... ! Ah , Judasen icenari beguiratu ta beguiratuco deutse guizaldi guztiyac gorroto ta itzalagaz, eta emongo yaque saltzalla guztiyai. Eta, ¿ez aldaquizu , ene semia , edocein cristiñauc pecatu mortala eguiten dabenian salduten dabela salbaguilliaren odola? Cequentasun eta dirugosiaren griña gais-tuac eruan eban Judas gaistaqueriya ain icaragarriyetara ; beguira eruan ez zaguizan ceu bere beste alaco batzuetara, mendian artuta zaucazan griña gaistnac.

2. Erabaguita beucan bere Jesusec ichitia bere areriyuai berari elduten, alambere aguertu gura izan eutsen bere escubide Jaungoicozcua , oraindic fedian argalac egozan Apostoluai , eta icusi eraguin mundu guztiyari, guizonen gais-taqueriyac , Jaungoicuac laquetu ecic, ecin daiquiala ecer berac berez. Ezagu-tu eraguin gura izan eban , bere areri-yuen cateiac ez ciriala aso ta duin bera menderatuteco , ezpada caridadiaren locarriyac; eta bere amodiyoz igaro gura

cituzala bere pasiño eta eriyotzia. Acha-quiyaric euqui ez eguiyen bera atrape-tara yuan cirianac, ezagutu eraguiteco euren indarren ecereztasuna , eguiten eben gaistaqueriya , eta damutu eragui-teco, esaten dabeeneco eurac Jesus Nazaretua billatuten ebela , Jesusec erantzu-ten deutse berba onecaz : *Neu naz* : eta Judas eta Fares:yuac, eta soldaduac eta justiciyaren aguacillac , yausten dira eta guelditu etzunic lurrian , oñaztarri batec euren buruetan yo balitu leguez. ¡ Gui-zonaren argala! ¡ Jaungoico baten indar ta escubidia !

3. Jesusec ichi eutseneco bere areriyuai euren senera biurtu eta yaiguiten, elduten yacaz chacur amorratu batzuc leguez ; lotuten dabe socacaz eta darue moduric charrenian, emoten deutsezala otsac eta sacacadac. ¡ Ah, ez dago orren premiñ:ric : esan eguiyozue yarraitu da-gizula , eta bera yuango da eruan nai dozuenedocein lecutara: ez deutsue atze-rapenaren apurric eracutsico: amodiyuac dauca lotuta , eta bere amodiyua ez da

aseco, emon artian odol guztiya, emon artian vicitzia guizonacgaitic !

ERABAGUIYA.

O neure ama , ce iracatsi icaragatrya dan au! Nic biar guztiz guichi eguin dot orainartian neure griña charrac azpiratuten ; baña icusiric batec eraguin leiquiyozala guizonari aimbeste pecatu, biar eguingo dot guelditu bagaric eurai yarquiten ; eta asi gura dot neu mendian artuteco gurariric gueiyen daucanagaz. Ez dot nic eguin gura salduqueriyaric. Sarritan goguān erabillico dot Jaunaren escubide eta zucentasuna , ceñec berba bacar bategaz bota leiquezan ez bacar-ric lurrera , baita infernuco ondar eta ossin zaconetara deunga eta saltzallac: erabillico bere dot goguan bere amodi- yua, araco amodiyo, nire salbaciñuagai- tic aimbeste lotsari eta pena igaro era- guin eutsazana. *Gomuta zaite, etc.*

---

## OGUETA BOSTGARREN EGUNA.

### SAN PEDROREN YAUSQUERIA.

1. Beste pena barri batec zatituten dau , ene semia , Jesusen viyotz mimberia ¡Pedroc, beste Apostoluen artian berariz argituac , guztiyen buru eta aguintaritzat autuac : Pedroc , eracutsi ebanac dempora guztiyetan federic viciyena , indar eta sendotasunic andiyena, ez dau ezagututen, ichiten dau bere iracasla maitegarriya estutasuneco demoran: ucatuten dau dala bere yarraitzaillia, eta diño juramentuagaz ez dabela ezagututen Jesus. ¡ Ce esquerbagatasuna! ¡ Ce desleiyaltasuna! ¡ Ay, bere indarretan eu can icharopenac yausi eraguin eutsan Pedrori pecatu ain andiyan! Icasi eguizu, ene semia , ez iminten ceure icharopena ceure indar utsetan , eta iminten ceure icharopena , bacarric Jaungoicuaren ontasun eta escubidian : urrindu zaite beti pecatuco arriscuetatic: escatu eguiuz as-

pertu baga Jaungoicuaren graciaren laguntasunac.

2. Pedroce beriala erantzuten deutsa bere barruan entzuten eban ceruco dei-yari, bere iracasla cerucuac zucenduten deutsan beguiracune bacar bategaz, emoten deutsa damu eguiyazco baten negar-rari : beriala ichiten dau pecatuco bide ta arriscuko lecua : urteten dau iracatsi ain bildurgarriya artu dabent eche-tic: eta ezaguturic bere argaltasuna, billatuten dau indarra, aurquitu al le-guiyan lecu bacarrian, oraciñuan, ora-ciño humill eta icharopenezcuan ; eta Pedroce Jaungoicuagana biurtuta, sendatuten ditu fedian bere anaiyac: bere fediak iraun dau sendo eta zabun bagaric bere ondorenguetan, ez da iños galdu, ez galduco bere.

3. ¿Ez daquizu, ene semia, aspertuta guelditu bagaric Pedro bere lelengo negarracaz, vicitza guztíyan negar eguin ebala salbaguillia ganaco euqui eban desleyaltasunagaitic? Ez demoria, ez bere Iracasla Jesusen aide ta onian eguin

cituzan lan ta gauza baliyo andicuac, ez elessa santia zucenduten eucazan ardura andi ta arazuac , ez ondu eban pecatari aldra amaibaguia , ecerbere ez zan asco ta duín , negar eguitiari ichiteco. Ez eban iños entzuten ollar baten cantua, beriala etorri bagaric bere gogo ta adiñera bere anchiñaco pecatuaren gomutia: bere beguiyen aurrian yarten yaczan beste gauza ascoc bere gogoratu eraguiten eutsen guztiz sarritan Jesusi eguin eutsan irain ta otensia. Icasi eguzu, ene semia, irudi onetatic , euqui biar dozun damu eta garbaiya aimbeste utseguite eta pecatu gaitic, ceintzuecaz ofendidu dozun ceure Jaun eta Jaungoicua.

#### ERABAGUIYA.

¡O neure ama ! Ondo dazaut , neugan icusiyaren ganera , cein andiya dan nire argaltasuna ! ¡ Oh cembañ bidar izan nachacon ni desleiyala neure salbagui-lliari larregui icharotiarren neugan ! Emendic aurrera nire arduria izango da

dempora guztiyetan igues eguitia contuz pecatuco bide ta arriscu guztiyetatic eta erregutu Jaungoicuari ordu guztiyetan esaten dodala neure viyotzaren barruan: *Neure Jaungoicua, ez nagiztu arren ichi neure indar utsen contura!* Alcantzau eguidazu, neure ama guztiz gozua, neure pecatu guztiyen amodiyozco damu eguiyazco bat, eta euracgaitic negar eguiteco graciya neure vicitzaco egun guztiyetan neure viyotzeco mingoztasunagaz. *Gomuta zaite, etc.*

## OGUETA SEIGARREN EGUNA.

CELAN IZAN ZAN JESUS AZOTAUA.

1. ¡Ce gogortasuna, ene semia, ce gogortasuna! Pilatosec aguinduten dau azotaua izan dedilla Bildots errubaguia, eta beriala betetan da bere epai edo sentenciya deunguia. Guizon gaisto batzuc elduten yacaz Jesuseri, ceruco edertasunari, quenduten deutsez lotsa bagaric bere soñeco santuac; lotuten deutse ar-

rizco pillar edo abe bati , borreru gorgor aserrez betiac , arturic erremienta mueta guztiyac etzuten dira bere ganian , bere araguiyac iruntsi gura dituezan leoyac leguez. Euren arrabiya ez da aspertuten, bata bestiaren ondoric emoten deutsezan ots icaragarriyacaz. ¡ Ay , ce icúsquizun arrigarriya ! ¿ Ez dacutsu celan urteten daben odolac ; eta yausten dirian zatica bere araguiyac ? Zauri batzuen ganian idiguiten ditue beste barri batzuc ; bere azor guztiyac contau leitequez : oñazptic asi eta buruaren garairaño ez dago beragan zati osoric.

2. ¡ Ce icusquizuna ! ¡ Ce tormentua ! Espiritu santuac eguiñico gorputz , izan dirian eta izan al leitequezanic samur eta mimberena darabille arrizco edo brontzezcua balitz leguez. ¡ Ce viyotz gorrecuac dirian, ene semia, pecatariyac, Jaungoicuaren legue santua ausiten da-beenac ! Eurac dira Jesusen penen borruuac. Biraotiyac lotuten dau abearria eta iminten dau billosic eta lotsariz beteric guztiyen aurrian: Iujuriyosuac

eguiten deutsa zure salbaguilliari zauri bat gorputz guztiyan bere loiqueriyacaz: miñ deungaco eta charto esaliac , zatituten dau Jesusen gorputza, lagun progimuaren icen on eta cleitua leguez: pecatariyac dira azquenic emoten deutsezanac Jesusi aimbeste azote gogor. ¡Ay! Ezagutu eguzu onezquero , ene semia, ezagutu eguzu, celaco bildur eta icaria-gaz beguiratu biar deutsazun edocein pecaturi !

3. ¡ Celaco biguntasunagaz , celaco eruapenagaz daruazan Jesusec pena ain andi ta portitzac ! Baldin Jesusec, baldin Bildots errubaguiac , igaroten badau aimbeste iñuen pecatuac gaitic , ¿ ceimbat igaro biar ez cenduque zuc ceure pecatuacgaitic ? Indartu zaite , ene semia, eruateco igaropenagaz munduco neque eta naibague guztiyac. ¿ Ez aldeutsazu emon gura Jaungoicuari ceure pecatuen paguric ? Arturic eruapenagaz eta borondate onagaz emengo naibague ta penac, ceuriac eguiten dituzn Jaungoicuaren semiac igaro cituzanac. Sendatu zaite,

ene semia, castiguetaco ceure burua, igues  
eguin gura badeutsezu Jaungoicuaren  
castiguai. Penitenciya bagaric ezdago pe-  
catariyarentzat salbaciñoric. ¿Cer diñozu,  
ene semia?

ERABAGUIYA.

¿Cer esango dot, neure ama? Diñot  
pagau gura dodala amodiyua amodiyna-  
gaz: amau gura dodala neure Jesucris-  
to Jauna neure viyotzeco indar guztiya-  
caz; negar mingotzac eguin gura doda-  
zala neure pecatu eta esquerbagatasun  
guztiyac gaitic: gura dodala penitenciya  
eguin, igaroten dodazala bardintasun  
osuagaz neque eta naibague guztiyac,  
eta mortifiquetan dodala neure vicitza  
guztiyan neure gorputza bere centzuna-  
caz. *Gomuta zaite, etc.*

OGUETA ZAZPIGARREN EGUNA.

ARANTZAZCO COROIA.

1. ¡Tormentu barriya! Soldadu viyotz

gogorrecuac artuten dabe elorri arantza pillo bat , eta catigaturic bata bestiagaz eguiten dabe coroe bat. ¿Ez dacutzu celaco gogortasunagaz iminten dabeen, celaco aserriagaz inquetan dabeen Jesus penaz betiaren buruan? Punta ba-cochac idiguiten dau zauri bat , zauri bacochetic urteten dau odolezco erreca batec, eta odol onec , bere arpegui ederra busti eta gorrituaz , edoituten dau araco eguzquiya , ceñeri beguira dagozan aspertu baga ainguerauac. Buruco miñic ariñena izaten bada zuretzat ain gogai-carri, necatsu ta penagarriya , ¿celacuac izango cirian, ene semia, Jesusec igaro cituzan penac, arantzac bere buru mimeran idgui cituezan aimbeste zaurigaz? ¿Ez zara icaratuten gogoratuaz bacarric?

2. Ez deutse iños eguin guizoni aimbeste ezicusi ta despreciyo , cein da era onetan santuen santuari. ¡ O cein alda-corra dan guizonaren viyotza! ¡Cein al-perrac eta utsac dirian guizonen alabantzac ! Bost egun lenago Jerusalen guztiyac pocezco cantacaz artu ebanari,

eguiten deutsez alaco barriac , burlac eta destañac , uri atan beratan , eta alabetan ebenac eurac. Orduan quenduten cituezan guztiyac euren soñecuac, zabal-duta lurrian iminteco, adierazoteco Jau-naren anditasunari eutsen lotsa eta itzala, eta gaur quenduten deutsez bere soñecuac, ezicusi, burla eta destañac eguite-co. Orduan guztiyac diadarrez esaten eben: *Osasuna eta gloriya Daviden se-miari*. Eta gaur botaten deutsez birao icaragarriyac, eta dirautsez ugari berba lotsa bagacuac. Orduan ezagututen eben euren erregeezat, eta ebaguiten citue-zan arechetaco orri eta erramac ; eta gaur ebaguiten dituez elorri arantzac eguiteco lotsarizco coroe bat ; iminten deutse escuan caña bat , eta estalduten dabe oiyal gorri zatar bategaz, barre eta burla eguiteco berari, irudi utseco erre-gue bateri leguez. Icasi eguizu , ene se-mia, ez yaramonic eguiten guizonen onra eta abegui onari : gaur ontzat emoten dabeena , biyar chartzat emoten dabe. Gauza guztiyetan billatu eguizu ceure

Jaungoicuaren gloriya, ceu santututia, eta lagunai mesede eguitia. Eguizuz ganza guztiyac gogo zucen eta onagaz.

3. Ene semia, icusten badozu bere ceure salbaguillia arantzazco coroyagaz, adorau eguzu guizaldiyen erregue, iños ecin il leitequiana leguez, dagoana yarri-ric tronu eta potestadeen ganian, doiana asseen egüen ganian, beguiracune bacar bategaz icaratu eraguiten deutsana mun- du guztiyari eta emoten deutsezana co- roiac lurreco erreguiai, edo zatituten dituzana, berac celan gura daben. Gaur aguertuten bada pena eta lotsarizco co- roiagaz, da ezagutu eraguin gura deu- tsalaco munduari bera dala eta izan gu- ra dabela batezbere eta berariz, penaz, estu, eta larri dagozanen erreguia. Zo- ri yonecuac bada padecietan dabeenac.

#### ERABAGUIYA.

¡O neure ama! nic adoretan dot neure arima guztiyagaz, bere almen eta gro- putzeco centzun guztiyacaz neure Jesu-

cristo Jauna, ezagututen dodala beragan gloriyaco erregua eta gauza guztiyac bere escu ta erabaguiyan daucazana, eta mirarituric bere humiltasun eta otsantasunagaz, izan gura dot humilla eta otsana viyotzez. ¡O ama, ceure seme Jaungoi-cuaren odola gaitic, alcantzau eguidazu humiltasuna! ¡O celaco gurariyac daucadazan humilla izateco! *Gomuta zai-te, etc.*

## OGUETA ZORTZIGARREN EGUNA.

### JESUS CALBARIYORA BIDIAN.

1. Eriyotzaco sentenciya emon zaneco Jesusen contra, ceñen errubagatasuna autortu eban Pilatosec herac, eldu eutsen Jesusi borreruac: yatsi eraguiten deutse Pilatosen jaureguitic, eta eracusten deutse, berac illa izan biar eban curutze, aurrez prestauta euquena. Erraz ezagutuco dozu, ene semia, Jesusec laztaundo ebala, eta estutu bere bularraren contra, gure salbacíñoraco esqui-

ñiya izan biar eban zura. Baña ez eutsen ichi luzaro egoten, bere yarraitzalla Andreseri leguez, maitetasuneco berba samurrac esaten; cegaitic ece, bere areriyuac euquezan leguez gurari viciyac ilten icusteco, quendu eutsen bere besuen artetic, eta asi eraguin eutsen arin baño ariñago calbariyoraco bidia.

2. Badua, ene semia, badua zure salbaguillia eriyotzaco mendira: urreratuten da azquenengo guertaera negargarriya, ceñegaz amaituco daben vicitzia. ¡O ceruacl celaco egoeran icusi eben ni-re beguiyac! Guizacume lotsagaldo ducoz inguraturic, arantzazeo coroe bat buruan dabela, indargaturic bota eban odolagaitic, eta igaro cituzan pena iearagarriyac gaitic, ceintzuec ichi eben adore bagarie bere guizatasun guztiz santua; yoian macurtuta curutze luce eta andi baten pisuaren azpiyan. ¡Ah, alan badarabille egur berdia, ostro eta orriz estaldurico, loraz beterico, eta frutu eder ta umanac ugari dancazan arecha; ¿cer eguingo ete deutsezur sicatu, arech

alper, beragandic fruturic batbere icharoten ez danari? Ain castigu icaragarriyac emoten baiyacoz Jesus errubaguiari iñoren pecatuac gaitic, ¿celacuac emongo ete yacoz pecatariyari bere beraren pecatuac gaitic? Icaratu zaite, ene semia, icaratu zaite, eta eguiyu aleguiña obra on eta santuacaz paguetaco Jaungoicuaren zucentasunari ceure peca-tuen zorra.

3. Izanic ain lucia bidia, eta egonic ain indargatua gure salbaguillia aim-bestea pena eta ain andiyacaz, uste eben Judeguac ecingo zala eldu viciric Calbarriyora curutze ain esquerga baten azpiyan sacatuta; eta orregaitic aguindu eutsen guizon bateri, lagundu eguiyola curutzia eruaten. Zuc, ene semia, guraco cenduan aguindu baleutsue guizon oneri leguez : pocic esquiñico ciñian eruatera, ceure salbaguilliaren curutze, Simon Cirenecuac indarrez ta gogorrian eruan ebana; bada ondo, ez dago munduan guizonic curutze bagacoric: penac eta naibaguiaç dira Adanen semeen

senipartia; eruan eguiuz gogo onagaz, eruan eguiuz igaropenagaz, Jesucristoren amodiyoz, eta berac emongo deutsu sariya, zure amodiyoz il zan curutzia bera eruan bacendu leguez.

ERABAGUIYA.

¡O ama, emon eguiyozuz nire ordez zure seme Jaungoicuari zor yacozan esquerrac, artu ebalaco bere ganian nire gaistaqueriyen pisua. Nic eguingo dot aleguina paguetaco Jaungoicuaren zuentasun eta justiciyari neure pecatuen zorra neure obra onacaz, baturic oneec neure salbaguilliaren odolagaz. Nic artuten dodaz pocic, bai ene ama, bai artuten dodaz pocic eta gogo osuagaz neque guztiyac; Jaunac bialdu gura deustazan pena mueta guztiyac. Zue emongo deustazu, ene ama, biar dodan indarra. *Gomuta zaite, etc.*

## OGUETA BEDERATZIGARREN EGUNA

JESUS CURUTZIAN YOSIYA ETA ILLA.

1. Onezquiero, ene semia, zure salbaguillia dago esquintzarico Altaran. ¡Ez dacutsu celan quenduten deutsezan bere soñecuac? Beguiratu eguiyozu etzunie, Bildots otsana leguez, curutzeco egurrian. !Ay, badirauntse yositen ultze lodi, barrura sartu eta urratuten deutsezananacaz azur eta zan guztiyac; yosi dituez araco escu, mundua eguin eta iraun eraguiten deutsenac. Badirauntse yositen araco oiñac, ceintzuen pausu guztiyac zucendu diran erruquiz eta amodiyoz. Orainche ereguiten dabe curutzia esquintzari garbiyagaz: inquetan dabe. Beguiratu eguiyu, ene semia, imiñiric ceruaren eta luraren bitartian parcaciñoco yarlecua. ¡Pecatariyac, danic gueiyen eta andiyenae izan arren zuen pecatuac, ez eguihue errenegau, ez galdu icharopena! Zuace arin damututa, zuace arin

uste ta ieharopenez beteric ceuen salbaguiliaren curutzera: naastau eguiuez ceuen negar malcuac bere zanetatic urteten daben odolagaz: garbituten bazare odol onegazconfesiñoco sacramentu santuan, berialasse izango zare parcatuac.

2. Onezquero macurtuten da bularraren ganera Jesusen burua: bere begui, aimbeste naibaguetuen poza izan drianac, ichi dira onezquero. Lurra icara dago: idiguiten dira sepulturac, vitztuten dira illac: elessaco erreccela urratuten da: eguzquiya argui bagaric gueldituten da, illuntasun icaragarriz estaldu da. ¿Cerda au, ene semia? ¡Ay, il da Jesus! Esquintzari bildurgarriyari beguira egozanac, borreruac eurac, diardue bularrai otsac emoten, onela autortuten da-beela dala Jaungoicuaren semia : eta quenduric berari vicitzia , adoretan da-be. ¡Ah! pecatariyac imiñico balitue sarri euren beguiyac Jesus curutzian yosiaren irudiyen ! adorauco balitue , eta mun eguingo baleusquiyue araco buruari, araco escuai, araco bular idiguiyari,

esaten deutsela euren buruai: ¡Gure arroqueriya, gure cequentasuna, eta andiguria, gure nabarmenqueriya aberenaren guisacua, gure pecatuac izan círian, Jaungoicuaren semiari vicitzia quendu eutsen borreruac: ¿celan egongo litzatequez euren bularrai otsac emon bagaric, euren gaistaqueriyac gaitic negar eguin bagaric, eta arin yuan bagaric garbitutera confesiñoco sacramentu santuan?

3. Ezagutu al izan dozu, ene semia, diriala amaibagacuac, aditu bere ecin leiquezanac Jesusec igarotaco penac zure arimiaren eta guizon bacocharen salbaciñua gaitic. Eta ¿zuc, ene semia, ez dozu erabaguiten batutia zure salbaguilliaren erabagui ta gurari onguillacaz, necatuten zariala zu bere, ceure indar guztiyacaz ceu santututeco, eta pecatariyac onduteco al dozuna eguiten? ¿Egon baciñaitequez onetaraco esquiñi bagaric ceure obrac, penitenciyac eta oraciñuac, errecceta n dozula batezbere gogo onagaz egunoro Ave Mariya bat? Eta ¿ez ete

dituzu goituco eragozpen guztiyac, ez beimbere utsic eguiteco, yai arrasteguiyetan, onetaraco sartuta zagozan archicofradiya onec eguiten dituzan elezquizunetara? Gogoratu eguizu ondo, ene semia.

ERABAGUIYA.

O ama, gura dot lenago il milla bidar, ofendidu baño nire salbaguilla, nire pecatuacgaitic curutzian yosi eta illa! Ez da onezquero egongo nire beguiyentzat gauza ederrago ta pozgarriyagoric, eta ez dau bere maitetuco nire viyotzac beste gauzaric gogo gueiyagogaz, Jesus curutzian yosiyaren irudiya baño, Nic imiñico dodaz neure ezpanae, mun eguingo deutset milla eta milla bidar debociño ta samurtasunagaz, araco oīñ, araco escu, nire amodiyoz ultzez yosiyai. Nic vici gura dot calbariyuan neure arima eta viyotzagaz. Eta Jesusec aimbeste eguin daben ezquero nigaitic eta arima bacochagaitic, oraindissec betico esquintzen dolaz zure viyotz guztiz santu

eta orbanic bagacuaren bitartez, peccatariyac Jaungoicuagana biurtu ditecen, neurre obra on guztiyac, penitenciyac, eta oraciñuac; errezauco dot beti beti egunoro Ave Mariya; yuango naz cofradiyaco elesquizunetara; eta erabaguita daucat zucendutia neurre yaquituriya eta aldodan guztiya Jesusentzat arimac irabazterea. Bedeincatu eguiuz, ene ama, nire erabaguita proposituac. *Gomuta zaite, etc.*

## OGUETA AMARGARREN EGUNA.

JESUSEN VIZTUERA BARRIYA ETA CERURA IGOERIA.

1. Il zanian Jesus, imiñi eben bere gorputz guztiz santua sepultura barri, ach baten idiguiyan, ceñetan ez zan iñorbere len enterraua izan. Jesusec esanic eutsen leguez sarritan bere areriyuai, ilda irugarren egunian viztuco zala, gcer eguiten dabe? Ichiten dabe ardura andi bategaz sepulturia, iminten dabe arri andi bat bere sarreran, sillututen

dabe arriya, eta gueldituten da soldadu aldra andi bat illa zainduten. ¡Neurri al-perrac! Aleguin utsac! Arguituten dau irugarren eguna; alcartutene dira Jesusen arima gloriyaz beterico eta bere gorputz illa: vitzuten dau: une atanche beratache sentietan da lurricara bat: soldaduac bildurtu eta icaratutene dira: zainduten egozanac yausiten dira erdi illic; eta euqui arren arri guztiz andiya, slluac eta beste eragozpenac, gloriyaz yantziric Jesusen gorputza, bide barri munduac ez equiyan bat idiguiric, urteten dau sepultura edo obitic garaitzaz beteric, idigui ez ausi bagaric. Emon eguiyozu gloriya, ene semia, adorau eguizu, cantau eguiyozuz mundu guztiyagaz batera garaitzaco cantac, eriyotziaren garailariyari, infernuaren garailariyari.

2. Ostera ez ilteco, ez penaric igaroteco, mee ta ariña, arguitasunez beteta, urteten dau obitic Jesusen gorputzac. Yarraitu eguiyozu, ene semia, irudi oneri pecatutic graciyaraco ceure viztuera barriyan, Jaungoicuaganaco ceu-

re biurreran. Egon zaite sendo, guero etorri lequiquizuzan esetsi eta tentaciñoe guztiyetan, gueruago gorroto andiagago bat artuten deutsazula pecatuari, eta osaro eci, memperatu eta azpiraturic ceure griña eta pasiño deungac. Eguizu beriala, eta atzerapenaren apurric bagaric, Jaungoicua servietara eta obra onac eguitera zuzenduten dan guztiya. Igaro zaite aurrera garratz eta sendo, ceruraco bidian aurreratuteco yarten yatsuzan eragozpen guztiyen artetic. Eguizu aleguiña arguituteco zure adimena graciyaren arguiyacaz, oraciñuaren eta gogoraciño santuen bitartez, icusi bere bedi zugan campotic modu ona, erabilli eguiuz baturic gorputzeco centzunac, eta emon eguiyezuz lagunai egemplu onac.

3. Emon ezquero Jesusec berroguei egunian, bere vitzuerabarri gloriyaz betiaren ciurtasunaren ezaugarriric arguiyenac, yuan zan egun baten őlibuen mendira, eta orduan an batu guiñian bost eun lagun baño gueiyagüen aurrian

asi zan igoten lurretic gorantz. ¡Ay, guztiyuen beguiyac, gurariyac, eta viyotzac yuazan bere ondoren : baco chac gura eutsan yarraitu, eta guraco cituzan icusi deseguiñic, lurrian gueldituta gueuncazan lazu ta locarriyac. Bitartian yarri zan otoi batec, ezcutau eban munducuen beguiyetatic, eta asi cirian ceruan piestac. Tronuac, dominaciñuac, principaduac, ceruco aingueruen coru guztiyac, urten eutsen bidera, eta beguiratu bere eciñic bere guizatasun santuac botaten eban arguitasunari, miraritu eta arrituric, imiñi cituezan euren cetro eta coroiac, Aitaren escomaco aldetic yarri zan gloriyaco erreguiaren aurrian.

¡Ah, ene semia, Jesus yarriric Aitaren escomaco aldetic, da mundu onetan viçi garianen eta ceruraco bidastiyac garianen icharopena, dan leguez zoriyoncuen atseguin eta gozotasuna. Ceruraco deitua zara, ene semia: ceruan dagoz zure ondasunac: cerua da zure eguiyazzo erriya: eta ¿ez dozuz viztuten ceure viyotzian cerura yuateco gurariyac? ¿Ez

dozu urten gura lurreco catigariyo eta illuntasunetatic?

ERABAGUIYA.

Gloriya, alabantzia, esquerrac eta bedeincaciňua, ilten zala, eriyotzia goitu eban, eta demoniňuaren mendetic atera guinduzan Bildotsari. ¡O ama, nic partill izan gura dot, zure viyotza bete eta ganez eguinic imiňi eban gozotasun eta zoriyonian, icusi cenduanian barriro vizturic ceure seme Jaungoicua; eta erregututen deutsut neure gogo, viyotz eta erraiyetatic, alcantzau daguidazula graciya, ez iñozbere yausteco tentaciňuan: eguiteco, Jaungoicua eta zu servieta-ko dirian gauza guztiyac; goituteco sendo ceruco bidian aurquitu al neiquezan era- gozpen guztiyac: eguiteco azquenic vi- citza bat, cristiňau bateri yagocana, egem- plu onecua, gueiyago cerucua munducua baño. ¡Ay, Jesus dago ceruan! ¿Cer gu- ra izan neique nic lurraren ganian? Ce- rura zucenduko dira emendic aurrera

nire cizpuru guztiyac. ¡Jerusalen, Jerusalen! ¡Sion zoriyonecua! ¿Nos sartuco ete nas ni vicilecu atseguintsu orreetan? ¿Nos icusico ete dabe nire beguiyac nire salbaguilla? ¡O ama, alcantza u eguidazu graciya erabilteco beti neure buruan goraciño au, eta beronec bete daguiyla nire viyotza *Gomuta zaite, etc.*

## OGUETA AMAICAGARREN EGUNA.

### ESPIRITU SANTUAREN ETORRERIA.

1. Jesucristo gure Jaunac cerura igonda amargarren egunian, yatsi zan lurrera Espiritu Santua, Espiritu arimen gozatzallia, Irubatasun guztiz santuco irugarren personia. Apostoluac artu ebe-neko Espiritu Jaungoicozco au, argui, indar, eta sendotasunez beteric, asiten dira prediquetan Evangeliyua; eta berialasse millaca guizonac biurtutenez dira Jesusen leguera Jerusalengo uriyanean bertan. Emendic urtetean dabe mundu guztiya irabazterea: batzuc duaz erreinu batzue-

tara, bestiac beste batzuetara: eta amabi arraintzalla errucarri, ezeuqui, eta guizajoc, munduaren aldeco yaquituriya eta laguntasun bagaric, zucenduric bacarric Espiritu Santuac emoten deutsezan arguitasun eta indarragaz, alcantzetan dabe Jesusen leguiaren mendian imintia yaquintsuac, eta yaquituriya bagacuac, andiyac eta chiquiyac, erreguiac eta euren aguindupecuac. Munduac artuten dau euren bitartez arguiya eta eguiya: mundua santututen da ! Baña begira, ene semia, Apostoluac artu baño lenago Espiritu vicitza emolla, biurtu cituzana utseguite asco euquezanac santu izatera eta coldarraccirianac sendo eta indartsu, egon cirian neugaz batera bacartadian apaltoiyan, munduko gauza guztiyac gogotic quenduta oraciñuan eta eguiya santuac buruetan erabiltzezala. ¡Ah, ene semia, eguingo bacenduz zuc bere urte guztiyetan zortzi edo amar bat eguneco egerciciyuac! ¡Egongo baciña aldichu batzen bacartadian arimaco lanetan, ceure confesoriac esaten deutsun moduan!

2. Ez eguizu uste izan , ene semia,  
Espiritu Santua bacarric emon yaquela  
Apostoluai, eta lelengo cristiñauai: ¡ay,  
ez! Jaungoicuaren graciyan daguan ari-  
ma guztiya, pecatu mortalic bagaric da-  
guan arima guztiya , da Espiritu San-  
tuaren elessa vici bat: anche ariman vici  
da ecin esan leiyan modu baten Espi-  
ritu atseguin emolla au , eta une bacar  
batan bere ez dau alderic eguiten bera-  
gandie. Emoten deutsa berac arimiari vi-  
cizia, sendatuten dau, zucenduten dau,  
berotutten dau: berac arguituten dau ora-  
ciñuan, bialdutten deutsaz gogo onac, eta  
santututeco ta ceruco bidian aurreratuteco .  
gurariyac. ¡Ene semia; ezagutuco bacen-  
du ondo Jaungoicuaren doe au; ezagu-  
tuco bacendu cein dan zure ariman os-  
tatzdaguan arrotza; ¡ce gozotsu eguin-  
go litzaquezun vicitia beti ceure barruan,  
munduko arroqueriya ta arazuai yara-  
monic eguin baga ! ¡Ce berbeta gozuac  
euquico cenduquezan beragaz ceure vi-  
yotzaren barruan, eta ce zur egongo ci-  
ñatequezan entzuteco bere berba samur eta

iracatsi cerucuac. ¡Celan euquí eusquiyon guizonac Jaungoicuari amodiyo duiña, Jaungoicuac berac onetaraco biar dana emon ez baleutsa era eta modu miragarri baten? Jaungoicua ametaco ez da asco guizon baten viyotza, biarzan Jaungoico baten viyotza; eta egon ezquero graciyan, ene semia, egon ezquero garbi pecatu mortal guztiyen orbanetatic, zure ari-mia da bertan vici dan Espiritu Santua-reна; zure viyotza da beragaz Jaungoi-co baten viyotza. ¡O ce zoriyona, ce don-tsutasuna graciyan daguan arima batena!

3. Espiritu Santua yatsi zan lurrera iminteco viyotzetan amodiyozco legue bat: goratuteco arimac euren-ez di-rianen ganera: da Jesucristogaz batuten dituzan locarri miragarriya. ¡Ah, ene se-mia, ain da andiya, Espiritu Santua be-ragan daucan arima baten edertasuna! Graciyan daguan arima bategan aurqui-tuten dira edergarri ain senduac ece, ecelambere ecin ichi leiquiyo Jaungoicuac maitetu bagaric egoera eta esta-du atan irauten daben artian! Jaun-

goicuaren graciyan daguan arima batec eguiten dituzan gauza guztiyac eta bacochac ain asco baliyo dau ece, milla mundu ez litzatequez asco izango, euren sari duintzat. Egoera eta estadu dontsu atan emoten badeutsazu caridadez, egarritz daguan bateri pichar bete ur, edo visitetan badozu gueisso bat, edo eguiten badozu beste edoceimbere gauza on, jecemba derichazu, ene semia, baliyo dabela, onelaco gauzaric chiquienac? Milloe bat mundu emongo baleusquizuez bere, ez cenduque artuco arec baliyo dabentz beste. Jaungoicua bacarric izan leiteque, Espiritu Santua beragan aurquiten dan arima batec eguiten dituzan gauza onen baliyo eta sari duiña. Gogoratu eguzu au ondo, ene semia, eta erabagui eguzu, eguitia al daguiuzan obra on guztiyac, eta eguitia alako gauza andi eta amaibagaco baliyocuac, biar dirian contu eta arduriagaz.

ERABAGUIYA.

¡O neure ama, eguiyaz eta benetan da Jauna gugaz ugari eta escu urratua! Ez asco ere chiric Aita beticuari, bialdutia bere semia gu pecatutic aterateco, Aitac eta semiac emoten deuscue Espiritu Santua, eta Jaungoicozco Espiritu onec gura dau vici egotez gure arimetan. Espiritu gozagarriya, yaubetu zaite nire arimiagaz: quendu eguiyozuz lurreco gaucetaraco gurari ta eraspen guztiyac: emon eguiyozu sendotasun eta indarra, yaramonic eguin bagaric mundutarren esames eta barriquetai, eta goituric eragozpen mueta guztiyac, aurreratuteco beti iñosbere guelditu bagaric santutasuneko bidian. Eguizu ama doncella santia, iraun daguidala beti Jaungoicuaren graciyan, onelan vici dedin nire ariman Espiritu Santua, zucenduten dabela, eta onera iguitu. ¡O ama! ezagutu eraguin deustazu, Jaungoicuaren graciyan daguan arima hategi eguiten dituzan obra on baco-

charen irabaci, sari eta baliyua: eta ezaue-  
ra onegaz eguiten dodaz nic erabagui bi:  
lelengua, gurago izatia lenago il milla  
bidar, pecatu mortal bacar bat eguin  
baño: bigarrena, ardura guztiz andi bat  
euquitia neure vicitzaco egun, ordu eta  
une guztiyetan, eguiteco al dodazan obra  
on guztiyac. Eguizu zuc, ene ama, izan  
ditecela sendo eta eraguillac erabagui  
oneec, *Gomuta zaite, etc.*

**Mezia entzutecomodua, liburuehu onen iracatsiyen erara, alearturie adoraciñua eta meditaciñua.**

## MEZIAREN ASIERAN.

Trinidad guztiz santua, Jaungoico amaibaguia, zure anditasun neurribagaco eta adoragarriyaren aurrian auzpazturić humiltasunic andiyenagaz, lotsaz betteric, beguiraturic neure vicitza guztiyan eguin dodazan pecatuai, eta gorrotoz beguiratuten deutsedala neure viyotz guztitic, escatuten deutsut humiltasunagaz, parcatu daguidazuzala Ama Virgiña Mariyaren eta ceruco santu guztiyen

erreguac gaitic. Garbitu naguizu, Jau-  
na: quendu eguiuz nigandic orban guz-  
tiyac, entzun daguidan biar dirian pres-  
taeracaz, sacerdote Jaun au esatera doian  
meza santua.

Nic gura dot batu neure gogo eta in-  
tenciña beriagaz, gueure ama elessa san-  
tiarenagaz, eta Jesucristoc berac euqui  
ebanagaz, eguin eta ichi euscunian sa-  
crificiyo santu au, eta orainche bere dau-  
canagaz, nigaitic altaran sacrificuetan  
dan demporan: nic esquintzen deutsut  
ezagutu eta autortuteco daucazun es-  
cubide eta aguinaritza osua nire eta  
gauza guztiyen ganian; nire pecatu  
guztiyen parcaciñoraco; nire vicitza guz-  
tiyan eguin deustazuzan mesede ain uga-  
riyen esquerrac emoteco; eta alcantze-  
taco zure ontasun neurribagacuagandic  
araco doe baliyo andico, araco graciya  
ain opa eta desiagarri, bacarric emonac  
izan leiqueguzanac izanic justua berez  
eta izatez, guizon guztiyen onian es-  
quiñi eta sacrificau gura izan ebanaren  
irabaciyen bitartez.

Iminten dodanian zure aurrian , ó Jaungoico guztiz altsua, neurri bagaco baliyoco esquintzari au, uste betiagaz es- catuten deutsut elessa santiagaitic , eta Aita Santu, lurrian zure ordeco eta bere buru ta gobernariyagaitic ; gueure ari- men artzain eta zucentzallacgaitic; eta er- reiñuetaco erregue eta aguintariiyac gai- tic. Gogoratu zaite Jauna berariyaz N. eta N. gaz, eta euracgaitic erregututeco gogua nosbait euqui dodan guztiyacaz. ¡ O Aita guztiz biguna ! Nire senide, adisquide eta onguilla asco ez dira onez- quero vici lurrian, eta menturaz ez dirá oraindiño sartu Jerusalen cerucuan. Go- goratu zaite bada N. eta N. zure servitza- ri, fede santuco señaliagaz nire aurretic yuan , eta baqueco luan dagozanacaz; erregututen deutsut emon daquiyezula eurai, eta Jesucristogan atsedeten dago- zan guztiyai, atseguin, argui eta zori- yontasuneco lecua. ¡ Jaungoico guztiz erruquierra! Ezarri eguizu beguiracune samur bat gentil, herege, judegu eta elessa santutic campora dagozan guzti-

yen ganera; baitabere pecatari errucarri  
guztiyen ganera.

*Emen iracurrico dirá liburu onetan dagozan iracatsiyetatic baten iru puntuac eta erabaguiya. Bacochac iracurri leique onduen derichana; baitabere artu leique asteco egun bacocheraco bat, iracurten dabela conturaco domecan Jesusen yaiyotzia; astelenian iru erregueen adoraciñua etc. Iracurri ezquero, egongo da meditaciñuan consagraciñoco dempara artian.*

## CONSAGRACINUAN.

¡Ceruac! ¡Ay au gauza icagarriya! Aita beticuaren seme bacarra, Jaungoicua bera, gure amodiyoz guizon egun zana dago altara orretan. Ceruco ainguerauac, erdue; adorau daigun! O neurre Jesus ona! nic sinistuten dot orche zagozala: adoretan zaitut itzal eta erreverenciayaric andiyenagaz ; ametan zaitut neure viyotz guztitic. Emenche dago zure gorputz curutzian esqueuiric egon

za na; baliyo neurribagaco odol, gure pe-  
catuac gaitic isuri eta bota cenduana; zu-  
re arimia , eta zure Jaungoicotasuna.  
Emon eguidazuz nirli, neure salbagui-  
llia, zure pasiñoco irabaciyyac; nic esquin-  
tsen deutsudaz neure odola eta neure  
vicitzia , nigaitic altariaren ganian zeu  
ceurori esquiñi eta sacrificuetan zarian  
amaibagaco caridadiaren ezagüeran eta  
beragaitic esquerrac emoteco: eta erre-  
gututen deutsut, arren ontzat artu da-  
guizula.

*Emen eguingo da beste iracurte aldi  
bat liburu onetaco iracatsiyetatic, len  
esan dan leguez, Jesucristo gure Jaunaren  
pasiñoeco pausuren baten ganian. Eta  
guero bararen ganian meditacinua sa-  
cerdotia comulguetan dan artian.*

## SACERDOTIA COMULGUETANDANIAN

¡Ce poza izango litzatequian niretzat,  
neure Jesus maitegarriya , zu artutia  
orainche neure bularrian, zu adoretaco,  
nazan guztiyau esquintzeco, neure pre-

miñen barriya zuri emoteco, eta eguiyaz zu ostriya santuan artuten zaituezanai eguiten deutsezuzan mesedeen partill izateco. Baña orain au ecin eguin neiquian ezquero, nic gura dot zugaz batu arimariic garbiyen eta zure maitetzallenac eta batez bere zure Ama doncella Mariyac comulguetan zanian euqui oicituezan prestaera ain eder guztiyacaz, eta gurari viciyacaz. Garbitu naguizu, Jauna, neure loqueriya eta orban guztiyetatic, parcatu eguidazuz neure pecatu guztiyac, eta eguin naguizu, sacerdote Jauna comulguetan danian, aurrian dagozanac atera biar dituezan arimaco onera eta mesedeen partill.

### AZQUENENGO ERREGÜETAN.

¡ Neure Jaungoicua ! ¿ Ce modutan aguertu neiquezu nic neure ezaueria eta neure amodiyua mesede ain andiyagaitic ? Aita guztiz altsu, izatia emon ceustana; seme Jaungoico, ceure eriyotziagaz pecatutic atera ninduzuna, Espiritu

Santu, santutu nozuna: nic eguiten deutsuet neure viyotz esquertsuaren esquintzariya. Artu eguzu ontzat, o irubatasun guztiz santua , yarri eta guelditu nadilla osoro zure mende eta aguindupian. Eguizu izan dedilla zure gogocua, zure beguiyen aurrian imiñi dogun mezaco sacrificiyo santua; eta zure erruquitasun amaibaguiagaitic izan dedilla zuc nigaz eta eurac gaitic esquiñi dogun beste guztiyacaz , daucazun aserriaren bigungarriya : Jesucristo gure Jauna gaitic. Amen.

### AZQUENENGO EVANGELIYUAN.

Jaungoico guizon eguiña, Aitaren se me bacarra, munduko arguiya, cerutic yatsitia ontzat euqui cenduana, araco bida guri eracusteco. ¿Ce berbatzuaz adierazo neique nic , nire ezauera eta esquer ona ? Jaungoico araguitua , nic emoten deutsut neure viyotza. Nic adoretan zaitut itzal eta erreverenciyariec zaconenagaz , ametan zaitut amodiyoric

gorituenagaz. Zu zara nire salbaguillia, neure Jesus : zugan, bacarric zugan, iminten dot nic neure icharopen guztiya. Zu zara nire Jaungoicua, eta Jaungoico bat, guizonae salbetiagaitic guizon egun ciñana : icharoten dot bada , eta sendo icharoten dot, emongo deustazuzala biar dodazan graciya guztiyac santutu nadin, eta elduteco zu icustera ceruan, gozatu gaitezan amaibagaco gloriyan. Amen.

---

**Confesiño eta comunión  
aurreraco ta osteraco oraciñuac**

---

**EXAMINIAREN AURRIAN.**

*Yuan zaite lecu bacar eta issil batera esaminia eguiteco, eta yarriric an Jaungoicuaren aurrian, albait batuenen, esango dozu urrengo*

**ORACIÑUA.**

¡O neure Jaungoicua, neure aita eta neure jueza! Nic dazaut neure pecatu ta esquerbagatasunen pisuac sacatu ta azpiratuten nabela, eta alambere ecingo neuquez ondo ezagutu neure indar utsacaz; cergaitic ece, neure amodiyo eta burutaciñuac eguiten dituez aleguiñac sinistu eraguiteco ez diriala aimbeste, ez ain andiyac nire gaistaqueriyac. Orre-

gaitic, neure Jaungoicua, zucenduten naz zugana, eta gogo guztiyagaz esca-  
tuten deutsut argitu daguizuzala ni-  
re concienciayaco bazterrac ceure argui  
Jaungoicozuagaz, icusi daguidazan ondo  
neure pecatu guztiyac, eta euqui doda-  
zan utseguito guztiyac neure obra, ber-  
ba, pensamentu eta desioetan, zure gra-  
ciyagaz gorroto artu daguiyuedan, eta  
damutu nadin neure pecatu guztiyacaz  
confesau daguidazan arguiro, eta necatu  
nadin neure vicitza guztiyan euren zorra  
paguetan obra on eta santuacaz. Mari-  
ya pecatariyen igueslecua, neure ama  
gozua, lagundu eguidazu. *Gomuta zar-  
le, etc.*

*Sarritan confesetan  
eta comulguetan dirianac eta ceruco  
bidianasco aurreratu nai dabeenac  
eguin leiye onelan examiñia.*

---

## LELENGO MANDAMENTUA.

JAUNGOICUA AMETIA GAUZA GUZTIYEN GANIAN.

1. Bota ete dituzan arin eta laster fediaren contraco pensamentuac , edo Jaungoicuaren ontasun eta erruquiyan euqui biar dogun icharopenaren gane-cuac.

2. Larregui estutu ete dan bere pena eta naibagueetan.

3. Beguiratu ete deutsen onelaco pena eta naibaguiai Jaungoicuaren escutic etorriyai, edo berac ichi eta laquetuai leguez.

4. Igaro ete dituzan eruapen osuagaz eta pozagaz.

5. Imiñi ete daben biar dan arduria erantzuteco jaungoicuaren arguitasunai eta bere mesediai.

6. Ichi ete dituzan eguin bagaric egunoroco lan onac, oraciñua, meditaciñua, lñburu onac iracurtia, esamiñia etc., edo eguin ete dituzan ardura ta ganora bagaric.

7. Erraz aguertu badeutsez besteren batzuei bere gurari ta obra onac, penitenciayac etc.

8. Berba eguin badau biar dan lotsa eta itzal bagaric gauza onacgaitic, confessoriac gaitic, predicatoriac gaitic etc.

9. Gossetic gaberaco bere lanetan erabilli ete daben beti goguan jaungoicua, esaten dituzala sarritan erreguchu laburrac, eta escaturic onetaraco laguntasuna.

10. Eguin ete daben aleguiñic bere griña ta pasiñac azpiratu ta goituteco, batezbere guerraric gueiyen eguiten deutsana.

11. Egon ete dan elessan berbaric eguin bagaric eta biar dan modu onagaz.

12. Bere obra onac eguin ete dituzan

siniste alper edo sorguinqueriyaren bategaz nastauric.

## BIGARREN MANDAMENTUA.

### EZ JURAMENTURIC EGUITIA ALPERRIC.

1. Jaungoicua testigutzat imiñi ete daben gauzaren bat sinistu eraguiteco.

2. Norbaiti juramentu eraguin ete deutsan, izan arren gauza chiquiyetan eta eguiyagaz.

3. Adierazoteco gauzaren bat alan dala, edo ez dala bota baditu biraoren batzuc, esateraco: Emenche illic guelditu nadilla, au alan ezpada etc.

4. Bere seme, otsein ta mendecuai aguiraca eguin deutsenian bota badeutsez birauac eta añenac, gogo char bagaric izan arren.

## IRUGARREN MANDAMENTUA.

1. Mezan egon ete dan beste gauzaren batzuc goguan dituzala.

2. Biar andi ta eragotzirio eguin edo eraguin badau premiña bagaric, dempora laburrian izan arren.

3. Yaiyegunic gueiyena igaro ete dozun yanza edo olganza alperretan; berbaraco, cazan, yocuan etc., mecia entzutia baño beste gauza onic eguin bagaric, eta yaiyac ondo santutu bagaric.

4. Ceure naguitasun edo ardurabagatasunagaitic gueldituten bazara yuan bagaric meza nagusira, vesperetara, erro-sariyora, sermoira, dotrinia icastera, eta onelaco beste gauza onetara.

5. Ugazabac eta nagusiyaguac emoten ez badeutse otsein eta mendecuai, biar ric eguin ecin leiyan yaiyegunetan confesetaco, eta arimaco beste gauza onac eguiteco biar dabeen demporia, euren burutaciño utsagaitic bacarric.

6. Eguin ete dituzan barauac biar dan leguez; ala yan ete daben cerbait yanbitarteetan; edo larregui gossian edo gaubian.

## LAUGARREN MANDAMENTUA.

### AITA ETA AMA ONDRETIA.

Gurasuac, eta ugazabac esamiñau biar dabe:

1. Ardura guichi euqui ete dabeen euren seme alaba ta mendecuac icasi daguiyen ondo dōtrinia, sarri confesau eta comulgau ditecen, eguin daguiyezan gosseco eta gabeco errezuac, comuniño aurrecuac eta ostecuac, eta eguin daguiyezan egunoro devociñoren batzuc.

2. Izan ete dira ardurabagacuac castiguetaco biar danian, edo yaquiteco celan vici dirian.

3. Aguiraca eguin ete deutsen modu charrian, edo berba deungacaz ta bira o eta añenacaz.

4. Egemplu charrie emon ete deutsen berbacaz edo obracaz.

Seme alaba ta mendecuac esamiñau biar dabe:

1. Euren guraso edo ugazabai erantzun ete deutsen modu charragaz.

2. Euracgaitic quejau ete dirian cegaitic euqui baga; edo achaquiyau ete dabeen eurac eguiten dabeena.

3. Euren esanac eta aguinduac arin eguin ete dituezan, pecatu ez dan gauza guztiyetan.

4. Al dabeena eguin ete dabeen euracaz ondo egoteco ganza charrac ez dirian guztiyetan.

5. Lotsa eta errespetuagaz beguiratu ete deutsen euren guraso ta ugazabai, beguiraturic euracgan Jaungoicuari, ceñen lecuan dagozan.

## BOSTGARREN MANDAMENTUA.

### EZ IÑOR ILTIA.

1. Euqui ete daben edo badauca progrimuaganaco gorroto edo oztasunic.

2. Ezagutu eraguin badeutsa, aserriagaz beguiratuta, agurric ez eguiñagaz etc.

3. Bere barruan despreciyan ete daben, edo poztu bada bestiac despreciye-

tan dabelaco, edo penia artu badau bestiac estimetan dabelaco.

4. Igaro ete daben besteən geniyo char eta gogaicarriya, biar dan pacienciyagaz.

5. Aguiraca eguin ete deutsen premiña bagaric, edo garraztasun larreguigaz.

6. Galerazo badeutse premiña bagaric gauza onac eguitia, edo onelacuetan epelduteco bideric emon badeutse.

7. Eguin ezpaditu limosnac, al dituzala.

8. Visitau ezpaditu, gozatu al ceiquezan gueissuac.

9. Yanian edo edanian larreguiric eguin badau.

10. Yatorduez campora yan edo edan badau, premiña bagaric.

11. Yan eta edan badau ase ta betetako, eta ez vicietako.

## SEIGARREN MANDAMENTUA.

### ARAGUIZCO PECATURIC EZ EGUITIA.

1. Arin ta laster quendu eta bota ete dituzan pensamentu charrac.

2. Esan edo entzun ete dituzan, charra aditu leiquezan berbac, edo gauza charren bat gogora ecarri leiyenac.

3. Guizacumia emacumiari edo emacumia guizacumiai luzaro beguira egon bayaco, edo norberari nabarmenqueriyaz; edo irudi erdi billosai.

4. Iracurri baditu amodiyo loiyen ganeco gauzac dacardezan liburuac.

5. Yuan ete dan yantza mundutarretara.

6. Yantzi ezpada biar dan modu onagaz.

7. Adisquidetasun larreguiric eta estsiguitasun ta artuemon gueiyegniric ete daucan guizacume gauciak emacumia-gaz edo bestera.

8. Ucutu badeutsa edo norberari ucututen ichi emacumiak guizacumiai edo bestera, premiña bagaric.

9. Yan eta edan badau, edo oian biar dan baño dempora gueiyaguan egon boda, atseguin charren bat gaitic.

## ZAZPIGARREN MANDAMENTUA.

### EZ IÑORI ECER OSTUTIA.

1. Artu badau gauzaren bat, chiqui-ya izan arren yaubíaren borondatiaren contra.

2. Eguin ezpaditu biar dirian alegui-ñac yaquiteco norena dan aurquitu daben gaucia. yaubiari biurtuteco.

3. Zorrac pagau bagaric luzaroegui badaucaz, pagau al leiquezala.

4. Bere artuemonetan imiñi ezpadau biar dan beste ardura, iñori calteric ez eguiteco.

5. Iñori calteric eguin badeutsa, lotsaz, argaltasunez, edo bere eguinbiarrac ondo ez yaquitiarren; edo besteri eguiten ichi badeutsa.

Gurasuac, ugazabac, otseiñac, juezac etc., esamíñau biar dabe euren berarizco obligaciñuetan ce falta eugui dabeen.

## ZORTZIGARREN MANDAMENTUA.

### EZ GUZURRIC ESATIA.

1. Esan baditu cristiñau batec esan biar ez dituzan girabira eta inguramariyaco berbac.
2. Guzurric esan ete daben.
3. Arin quendu eta bota ez baditu juzgu char eta sospéchac.
4. Aguertu badau premiña bagarie iñoren erracuntza edo utseguiteric.
5. Esan baditu edo entzuten egon bada gustoz eta borondatez iñoren faltac, aguirriyac izan arren.
6. Norbait lotsatu badau, edo iñori burlaric eguin badeutsa bere aurrian edo ostian.
7. Iñogaz euqui baditu gustetan ez yacozan chancha eta olgantzac.
8. Iñoren esanai contra eguiten badeutse, eta temaz beriagaz beti urten gura izaten badau.
9. Ibili bida chismeriyetan edo alcar-

ren arteco eta echeetaco baquia galduen.

10. Berba larregui egunin badau, edo demporia igaro badau berbeta alperretan.

## CONFESIÑO AURRERACO.

### PECATUEN DAMUA VIZTUTECO.

¡O neure Jaungoicua! Barriro bere egunin dodaz pecatuac, esanic eta esquiñiric aimbeste bidar, gurago dodala lenago il, ostera pecaturic egunin baño. ¡Eta nic pecatu egunin dodala zure aurrian, yaquiñic ce gorroto andiya deutsazun pecatuari; baita bere baliyetan nazala zure mesediacaz euracaz pecatu eguiteco! Ezagututen dot nire esquerbagatasuna eta citalqueriya. Baña zu zara Jaungoico bat neurribaga biguna, zara aita bat eta aita guztiyen artian onena ta maitetza-  
lleena, eta alan ez daucat atzerapenic barriro yuateco zugana neure pecatu eta gaistaqueriya guztiyen parcaciñua esca-  
ntera: parcatu eguidazu, Jauna: ez na-  
guizu arren castigau duiñ nazan leguez.

Entzun eguziuz arren Jauna, viyotz eguiyaz damuturico baten zotin eta cizpuruac bere pecatuen damu gueiyago daucanarenac euracaz zuri emon deutsun naibaguiagaitic, euracgaitic merecidu daben pena eta castiguagaitic baño: erruquiz beguiratu eguiyezu, viyotz guztiz naibaguetu baten erreguai: viyotz guztiyac maitetua izateco amaigaba duin dan Jaungoico batec gura ez dituzan gauzac eguin dituzalaco.

#### ICHAROPENA VIZTUTECO.

¡Neure aita: ecín nengoque ni barriro esan bagaric. Nire gaiptaqueriya eta esguerbagatasunac estututen labe, eta ecingo neunque arnasa bacar bat artu, aldeduco banitzuz neure beguiyac amodiyozco menditic, calbariyoco mendi odolez betericotic! Baña ara zucenduten dodaz nire beguiracunac, eta ezagututen badoz daz bere neure argaltasunac, ecín nengoque viztu baga neure viyotzian, seme baten icharopen gozua. Nic confesetan

dot aingueruen aurrian ofendidu zaitudazala; baña nire salbaguilla Jesusen irabaciayac escatuten dabe niretzat graciya, indulgenciya ta parcaciñua. Bai; zure seme guztiz maitiac, gugaitse erru bagaric esquiñiya izan zanac, idiguiten deust bidia, guizona Jaungoicuagaz adisquide-tuten daben sacramentura elduteco, icharopenic senduenagaz, confesetan badodaz neure pecatu guztiyac ciatz eta arguiro, damu ta propositu eguiyazcuagaz, zuc ontzat emon eta igaroco dozula ceruan, confesoriac emoten deustan absoluciño eta pecatuen parcaciñua.

#### AMA VIRGIÑIARI ESCARIYA.

¡O Ama guztiz santa Mariya; beti pe-catari errucarriyen gordeleku segurua; ama graciyazcua, ama erruquizcua! Batu eguiuz zure erregu altsuac niriacaz, eguitera noian confesiñoiac ichi ez na-guiyan len baño chartuago; ezpada alcantzau daguidala pecatu guztiyen parcaciñua, eta emon daguidazala biar doda-

zan graciayac ez gueiyago pecaturic egui-teco. Neure ainguera gordetzallia, ni-gandie iñoz alderic eguiten ez dozun lagun ta adisquide leiyala; jay cemba-t bidar icusi nozun pecatu eguiten! La-gundu eguidazu arren orain euren par-caciña alcantzetan, ez iñoz ostera pecaturic eguiteco.

## CONFESIÑO OSTERACO.

### ESQUERRAC EMOTECO.

¡Cein andiya dan oraín nire zoriyon-tasuna! Neure aita: zure seme onen go-goraciño ta pensamentuac eguin dabe aldacuntza miragarri bat, eta bere viyo-tzeco gurariyac ez dira onezquero zuc gorrotoz beguiratutecuac. Eurac dira, nic mirariz beguiratuten deutsadan, eta aspertu baga bedeineatuco dodan sacra-mentuaren sari ta irabaciayac. Dempora guichi da gaisto bat nintzala, eta sacra-mentuaren graciayagaz aurquituten naz parcaturic, ondurić, eta garbituric guz-

tiz pecatuen órban guztiyetatic. Au da zure odol baliyo guztiz andico, nigaitic zuc, ó neure salbaguilla guztiz maitegarriya, isuri ta bota cenduanac nigan eguin dabena: zure zauri guztiz santuai, ceñen indar ta virtutia iratsi ta aplicau yaquen niriai, zor deutset parcaciñua ta dauca-dan zoriyontasuna. Eta, ¿cer eguingo dot nic, ó neure arimaco salbaguilla Jaungoicozcua, aguertu eta eracusteco zuri neure esquer ona, alaco ontasunagaitic? ¡Ah! Nic eguin neiquian gauza bacarra da, neure aita, iñardun gaur eta neure vicitzaco egun guztiyetan zuri esquerrac emoten. Bai; nic cantauco dodaz, aguertu ta zabalduco dodaz; goratuco dodaz Jaunaren erruquitasunac. Neure vicitza guztiyan, eta neure eriyotza-co larritasunetan euretan alabau eta goratuco dot Jaungoico bat ain ona, Jaun guztiyen artian oneena, aita guztiyen artian abeguiric onenecua ta maitegarri-yena. Alan izan dedilla.

ERABAGUI TA PROPOSITUAC.

¡Neure arimia! ¿Ezagututen dozu ondo une eta instante onetan ceir andiya dan zure zoriyontasuna? ¿Guraco dozu alden-du barriro aitaren echetic? ¡Ez, ez! Nic artu gura dodaz aurrerantzeraco neurri guztiyac ez ofendietaco neure aita ain on eta neure Jaungoicua. Prestauric nago ichiteco lagun deungac, ebaguiteco pecaturaco bidiac, ichiteco olgantza zoro ta pecatuan yausteco arriscuz betericuac: ez dago nequeric, danic andiyena izan arren, igaroteco prestauta ez naguanic. Orainche eguin deustazun mesediac artu eraguiten denst, ó neure Jaungoicoa, pecatuaganaco ain gorroto andiya, ce gurago dot milla bidar ill eta igaro pena guztiyac, barriro pecaturic eguin baño. Andiya da nire argaltasuna, baña nic eldu eta oratuten deutsat zure graciyari, eta goitu ta azpiratuco dodaz neure griñā eta pasiño deungac; zure laguntasuna iñoz faltauco ez yatan ciurtasuna gaz;

eta oraindiño ciurtasun andiyago bategaz, zure graciaren bitartez urtenic garaitziagaz lurrian, euquico dodala, zugaz beti aguintau eta erreinatoco zoriyontasuna ceruan. Amen.

## COMUNIÑO AURRERACO.

### FEDIA VIZTUTECO.

Neure salbaguilla maitia: urreratutenda onezquero neure vicitza guztico une eta instanteric zoriyonecuena, zure vicilecuac idiguiten dira, ainguerauc yatsiten dira cerutie, badatoz zuri lagun eguitera ceure amodiyozeo altaran; inguratutendabe zure anditasun amaibaguia, adoretan zaitue lotsa eta itzalic zaconenagaz, bildurrez icara dagoz eta estalduten dituez euren arpeguiyac aimbeste arguitasuneri beguiratu eciñic. Elessa santia, zuc gogoratu eraguiten deustazuz neure Jaungoicuaren amodiyuaren pausu guztiyac. Bai, zuc iminten deustazu beguiyen aurrian Jesus yaiyo barriya asca ba-

ten; Jesus naigabe ta larritasunic andiyenengen artian Getsemanico hortu santuan; Jesus azquenengo arnasetan calbariyuan; Jesus garaitza ta gloriyaz beteric ceruan; eta Jesus au berau da ni laster artutera noiana. Gorputzeco centzunac, nire adintza errazoe argala, zagoce issillie, ez eguihue murtic, ez chitic eguin. Jangoiko guziya al daiquianac berba eguin dau, eta nic sinistuten deutsat sendotasunic andiyenagaz. Sinistuten dot altaraco sacramentu santuan, oguiyaren antz eta irudiyetan daguala Jesucristo gure Jaun, orainche artutera noianaren, gorputz eguiyazcua, bere odola, bere arimia, eta bere Jaungoicotitasuna. Gueitu eguizu, neure salbaguillia, issiotu, gartu nire fedia.

## PECATUEN AMODIYOZCO

### DAMUA VIZTUTECO.

Ecin nengoque ni esan bagarie, ó Jesus, ó neure amodiyua: zure aingueru ta zo-

riyonecuac sinistu leiquide: eguiyaz zoriyonecua izatera noianian; nire viyotz dontsua izatera doianian eguiyaz eta benetan jaungoicotasunaren beraren echia, vicilecua, elessia ta sagrariyua; viyotz au berau deseguiten da cizpurueta, eta nire beguiyac prestetan dira bastiteco nire arpeguiya negar malco ugariyacaz. O nire gazte demporaco egun ederrac, ó neure vicitziaren egunsenti arguiyac, nic lotsabagaco onec irañ eta burlaz bete cinduedazan: vichten asi nintzaneco, asi nintzan neure Jaungoico onari naibaguiac emoten. ¡Neure aita, ceruco aita, noraño eldu ete da, nilaco seme cital eta galdu bat ganaco zure aserria? Eta alambere, zue mesedez bete gura nozula! ¿Au da nire gaistaqueriyacaz benguetaco modua? ¡Neure viyotza! ¿Vicico ete zara icusiric aimbeste ontasun? ¡Celan ez zara illic gueldituten instante onetan amodiyo eta peniaren indarrez?

## COMULGUETACO GURARIYA

VIZTUTECO.

Orra emen, azquenez neure vitzaco instanteric zoriyonecuen: instante bat, ceñetan Jaungoico batec beguiratu biar deustan bere semeric maiteenari leguez, eta berac gogocuen daben gauciari leguez, eta emon alacuaren ezaugarri eta señaliac. Neure viyotzeco Jaungoicua, neure maitetzallia, neure yaibia, ni nago biyuen arteco alcartasun eta batasun au eguiyaztuteco gurariric viciyenetan erre eta quiscalduten. ¡Ay ce zoriyontasuna au nire arimarentzat! Neure beguiyac, sicutu eguiuez onezquero zuen negar malcuac; neure viyotza, ez eguizu gueiyago cizpururic eguin; eta zuc sagrariyo santua, aldatu eguizu nire bularerra ceure barruan daucazuna; Jaunaren aingueruac, eruan naguihue ceuen egüetan jaungoicuaren maira: sacerdote santua, bete eguiuz nire gurariyac: ez eguizu atze-

ratu une bacar baten bere nire zoriyon-tasuna. Nire viyotza issiotuta dago; amodiyozco garrac sartuten yacoz alde guztiyetatic: egarri guztiz andi batec, gueiyago ta gueiyago ametaco egarri batec dauca issioturic nire viyotza. Erdu neure Jesus; nire izate guztiyaren yaube eguiñic guelditu zaite: erdu, bada onez-quero ni guztiyau naz zuria. ¡O neure Jaungoico ona, neure amodiyua, neure ontasuna, neure dontsutasuna, neure zoriyontasuna!

## COMUNIÑO OSTERACO.

### JESUS ADORETACO.

¿Cer da nic icusten dodana? ¿Cer da nic gogoratu eta mirarituten dodana neure viyotzaren barruan? ¡O ceruac! Nic dau-cat neugan zuen gloriya guztiya eguiten dabena, Jaungoico iru bidar santua, ceñen yarlecuaren aurrian iminten dituezan euren coroiac querubinic ereguiyenac eta ceñen aurrian cantetan dabeen donce-

Illa garbiyac Bildotsaren cantachua. ¡Cer! Ete zara zu, neure Jesus guztiz gozua, nic neure bularrian daucadana? Neure Jaungoicuaren ainguerauc, ceruetaco erreguiña, adorau eguihue nire ordez, neure barruan daucadan Jaungoicua. Ceruan Jaungoicua alabean zagocen zoriyonecuac, nic batu gura dodaz nire berba, canta eta viyotzeco gurariyac zuenacaz. Neure Jaungoicua, neure Jesus, ¡ay! ecin berbaric eguin dot: baña nire issiltasunac, nire gorputzeco moduac, nire poz eta atseguin santu, arpeguirañocuan aguiri danac, gueiyago esaten dabe nire berba guztiyac baño. Neure Jaungoicua, neure Jesus, nic adoretan zaitut.

### AMODIYUA VIZTUTECO.

Guztiyori zara maitegarriya, ó neure Jesus! Nic maitetu gura zaitudaz; nic maitetuten zaitut neure indar guztiyacaz eta neure gogo ta borondate guztiyagaz. Bai, nire viyotz zure yaube danac, eta ez daucanac beste gurariric zugaz beti ego-

tia baño; alde guztiyetatic zuganaco amodiyó ta leiyaltasuna dariyonac; beste gauzaric gura ez dabenac ezpada irabaztia mundu guztiya, bere Jaungoicuarentzat; nire viyotzac ceñen ots eta tau-pada guztiyac dirian amodiyoric sutsuenac eraguiñac; eta ceñen cizpuruac dirian pena eta naibaguezco cizpuruac beti amau ez zaituzalaco: nire viyotzac, ó neu-re Jaungoicua, eracusten deust maite zaituzala: cergaitic ez dau beste gauzaric gura, ez dau beste gauzaric opa, ezpada zure gogoco ta adisquide izatia, eta leiyaltasunagaz erantzutia vicitza guztiyan azquenengo arnasaraño.

### ESQUERRAC EMOTECO.

¿Cer egun dozu orainche puntuan nigaz, ó Aita samur eta maitegarriya? ¡Ce andiya dan egun deustazun mesedia! Zure gorputza, zure arimia, zure odola eta zure jaungoicototasuna imiñi dituzu nire bularrian. ¿Celan eracutsi neiquezu nic biar dan bestian neur ezagüera eta

esquer ona? ¿Celan erantzun neiquiyo nic aimbeste amodiyori? Neure Jaungoicua: emon eguiyozuz ceuc esquerrac ceure ontasunari. Artu eguizu ontzat eguitera nuatsun esquintzariya: esquintzen deutsudaz neure berba guztiyac, neure vi-yotzeco gurari guztiyac, ceñec ez daben onezquero izan gura besterena, ezpada bacarric zuria; ez da bere maitetu beste gauzaric, zu baño, zu bacarric baño.

#### ESCARIYA.

¡Neure Jaungoicua! ¿Cer billatu eta gura izan neique onezquero nic lurraren ganian? Nic zaucadaz zu, ontasun amai-dagacua, eta daucat neugan, zoriyoneco eguin nenguiquian guztiya orain eta gue-ro, mundu onetan eta bestian. Bai, neu-re aita: ez dauca eceren biarric nire zoriyonac, izaten banachatsu leiyala beti, eta ez banaz eguiten zure mesedeen duinbaguia. Baña ¡ay! nic ain argal eta bildurti onec, ¿cer eguin neique nire indar utsacaz? Ecerbere ez, neure

Jaungoicua: larregui bere badazaut neure argaltasuna, eta orregaitic escatuten deutsut, erregututen deutsut gogoric viciyenagaz, ez daguizuzala iñozbere nigandic aldendu ceure biguntasun, graciya ta amodiyozco beguiracunac: eta imiñiric neure escua, zu barruan zaucazan bularraren ganian, esquintzen deutsut eguitia zure laguntasunagaz, aleguin guztiyac, ez gueiyago pecaturic eguiteco, ez gueiyago zuri naibagueric emoteco. ¡Aita cerucua! Erabilli nagizu beti zure besuetan, zure amodiyuaren mendian, zure graciyaz beti inguratuta, eta eguizu nire azquenengo arnasia izan dedilla, zuganaco esquerric oneneco arnasia.

Urrengo erregua erregetan da Jesus curutzian yosiyaren irudi baten aurrian; irabazten da indulgenciya plenariya edo oso bat, esaten bada comulgau dan egunian eta ateraten da arima bat purgatoriytic.

## ERREGUA.

Beguiratu eguidazu, ó neure Jesus ona, auspazturic ceure aurrian: escatutent deutsut gogoric viciyenagaz, iratzi eta incau daguizuzala nire viyotzian fede vici bat, icharopen sendo bat, eta caridade goritu bat, neure pecatuen amodiyozco damu, eta gogo senduagaz ez gueiyago pecaturic eguiteco, gomutetan dodazan artian al dodan amodiyo ta erruquiric samurrenagaz zure bost zauriyac, asiten nazala David Igarla santuac zugaitic, ó neure Jaungoicua, esan cituzan berba oneetatic: *Zulatu deustez bateric bestera neure oñac eta escuac, eta contau dituez nire azur guztiyac.*

**Ama doncella Mariyac bere viyotz garbi-yaren cofradiyan sarturic dagozanai emoten deutsezan**

## CONSEJU TA IRACATSIYAC.

Ene semia, prestau zaite ardura andibategaz, enizuteco amaric samurrena leguez emotera nuatsun iracatsi ta conse-

juac: ondo sartu eta incauric euqui eguiuz ceure ariman; eta au obeto alcantzetaco gura dot iracurri daguiuzu-zala gueldiro gueldiro, eta contuz dome-ca guztiyetan eraric onena daucazunian. Orra emen lelengua:

I.

Ez zaite zu izan araco esaten dabenen artecua: *Asco da niretzat mandamentuac gordetia*, eta au esanagaz uste dabe, guztiz onac eta santuac izatia dala bacarric combentuetan vici dirianentzat. ¡Ah! Arriscu andico gaucia, guztiz arriscu andico gaucia da, ibiltia arin leza zacon baten inguruan girac eguiten; zoriyone-cua onelacuetatic urrin daguana. Onezaz ganera, ez da nire viyotzeco semiai yagoquena, servietia Jaungoicua urri eta cicoztasunagaz, ezpada gogo eta erabagi vici ta senduagaz: erabagui eguizu bada izatia, ez bacarric ona, baita guz-tiz ona ta santua.

II.

Ene semia, ez zara iñoz izango guztiz ona ta santua, yaquiñaren ganera eta borondatez pecaturic eguiten dozun artian: alan bada, lelengo euqui biar dozun arduria da, ez eguitia iñoz pe- catu mortalic, ez venialic, ez da utsegüiteric chiquiyenic bere ezagüeraz, yaquiñaren ganera ta berariyaz; eta egui- ten dozuzanacaz argaltasunez, eta uste bagaric leguez, berbaraco aserrechuren bat, guzur chiquiren bat, eta beste utsegüiteren bat, onelacuacaz bertatic damutu zaite, eta artu eguijuz asmo sen- duac aurrerantziān ardura andi bategaz vici eco eta gueiyago ez egüiteco.

III.

Ez euqui, ene semia, chiquitzat gau- zaric, zucenduten danic Jaungoicuaren gloriyara, -edo zure salbaciñora: alan bada, ardura andi bat imiñi biar dozu

gordetan Jaungoicuaren legueco mandamentu santuac, elessa santiarenac, eta ceure guraso eta nagusiyaguen aguinduac, erantzuten arin ceruco dei ta arguitasunai; ez galduen eraric chiquiyenic ceure arimia aberastu eta ceruco bidian aurreratuteco; arimaco areriyuen esetsiyai, eta ecandu charrai asieran yarqui eta gogor eguiteco; beguiratuten deutsezula gauza oneei baliyo andicuailleguez. Gauza guichíyan leiyala dana, errazoyagaz izango da andiyan. ¡Ay! Chimpert bat lasteramatetan ezpada, erre leiteque eche bat, uri bat, baso bat: ituguin bat laster quenduten ezpada, demporaz etorriko da tellatua yausitera.

IV.

Ain da andiya, ene semia, guizonaren argaltasuna ece, imiñi arren bere arduraric andiyena gauza guztiyetan, alambre ona eta justua bera bere yausten da utseguito batzuetan. Batzuetan ez dauca biar dan eruapen eta pacienciyaric

gauzaren bat oquer yatorcanian; beste batzuetan nastetan da bere gauza oneetan, bere buruaganaco amodiyo bidebagacoren bat, edo gogua yuaco beste gauzaren batera; edo aurquituten da astun, narras eta nagui. Baña euqui eguizu yaquinic, ene semia, egunian onelaco mīla eguiten badozuz bere, edo bat milla bidar, ez dozula coldartu eta bildurtu biar. Ezagututen dozunian utseguitareren baten yausi zariala, yaso eguizu ceure viyotza Jaungoicuagana, escatu eguiyozu parcaciñua icharopen oso bategaz; cergaitic ece, da amaibagaco erruquizco aita bat; eta yarraitu sendo eta gogotic ceure lan on, errezu ta erreguai. Coldartu eta bildurtutia eguin dituzan utseguitiacgaitic, da utseguite barri bat eguitia.

V.

Ene semia, ecin aurreratu leite bat cerurantz, ezpadua bat |humiltasuneco bidetic; cergaitic ece, Jaungoicua yarqui-

ten yaque, eta gogor eguiten deutse arruai, eta bacarric humildiai emoten deutse bere graciya. Baña humildia izatera elduco bazara, azpiratu biar dozuz arroqueriya, eta ceugan daucazun uste eta erechi larreguiya, ezagututen dozula ez zariala beste gauzaric, ezpada pecatari errucarri bat, eta ez daguala zugan gauza onic, artu ez dozunie. Euqui eguiuz guztiyac ceu baño obatzat, virtute eta santutasun andiyagocotzat, eta humillau zaquiyuez viyotzez guztiyai. Baitabere quendu biar dozu azaleco eta campotico arroqueriya soñecuetan, apainduriyetan, eta iñoren gogo, amodiyo eta abeguiya ceugana-tuteco gauza guztiyetan. Guztiyac yantziyan modu onagaz ibilli biar dabe; baña arroqueriya, munduko zoraqueriyetaraco eraspen eta gogua; soñecuetan ardura larreguiya, eta mundutarren esamesen bildurra, beti izan dira eragozpen andiyac salbetaco. Eracutsi eta aguertu biar dozu humiltasuna albait sarriyen eguite-tan, bai barrutic, eta bai campotic, alper-ric galdu bagaric onetaraco izango ditu-

zun eraac, guzurren batzuc asmetan deutsuezanian, despreciyetan zaituezanian; sufriean dozula ceure humore charra, aserratu bagaric, quejau bagaric, eta bardin utseguiteren batzuetan yausten zarianian; azquenic emoten deutsezula bestiai lecuric onena; ezbai eta disputetan oben eguin, eta eurenagaz urteten ichiten deutsezula, ceuc errazoia euqui arren; eta artuten dozuzala ceuretzat gauza eta lecuric beerenac eta zatarrenac.

VI.

Ene semia: ez eguiuz iñoz ichi eguin bagaric premiñazco gauzac, borondatezco errezuac gaitic. Ez litzate izango Jaungoicuaren gogoco gaucia, ichitia berac aguinduten dituzan gauzac, eta ceure estaduko eguinbiarrac, bestetic erreguta errezu asco eguingo bacenduz bere. Ez yaquin dotriňia, eta ez eguin aleguinie icasteco, eta baru asco eguin; echeko lan ta biarrac ez eguin, familiyagaitic

ez beguiratu, eta egon goissosuetan elesan, au ez da ondo eguiña ta santutasuna, ez onen irudico gauzaric bere. Baña eguin biar dozuzan gauzac ichi bagaric, euqui eguiuz, ene semia, ceure dempora icentauac eta albait gueiyen, borondatezco errezu eta erregüetaraco. Euqui eguzu erabaguita, ordū bacochian cer eguingo dozun, eta beti izango dozu astiya, dempora apur bat igaroteco liburu onac iracurten, oraciñuan etc.

VII.

¿Gura dozu yaquin, ene semia, celan aurreratuco dozun guztiz asco ceruco bidian, eta erraztasun andiyagaz; etorri daquizuzala modu batera, nai bestera munduko gauzac? Orra emen. Erabagui eguzu ceure artian, eta artu gogua sarritan, beti gura izatia gauza guztiyetan, Jaungoicuac gura dabena, padecietia Jaungoicuac gura dabena, Jaungoicuac gura dabelaco, eta Jaungoicuac gura dabben leguez. Onelan zure vicitzia izango

sore on eta yaquintzu bat. **Yarraitu** eguiyozu beti bere erechiyari; eguizu ardura andi bategaz berac esaten deutsun guztiya. Entzun eguiuz bere berbac Jaungoicuaren berbac leguez; bada confesoriac berba eguiten deutsunian, Jaungoicuac berba eguiten deutsu. Ocelan izango dira zuc eguiten dituzun gauza guztiyac Jaungoicuaren gogocuac, eta obedienciyaz eguiñac leguez, artuco dozu onelacuen sariya.

IX.

Badaquizu, ene semia, ardura andiyaguagaz beguiratu biar dozula modu guztiyetara arimaco osasunagaitic, gorputzecuagaitic baño; cegaitic ece gorputza deseguiten da eriyotziagaz, arimia barriz ez da ilten. Alambere, arimiaren osasunaren calte baga, beguiratu eguizu gorputzaren osasuna gaitic bere; cegaitic ece osasuna galduen badozu gueldituco zara ecin eguin dozuzala gauza on asco, errezuac, baruac, peniten-

ciyac eta onelacuac. Ez eguizu bada  
eguin penitenciya eta laztasun larregui;  
ez eguizu eguin errezu eta beste onela-  
co gauza borondatezco gueiyegui; eta  
dempora guztiyetan, ceure lanetan, ceu-  
re arazuetan, gauza oneetan euretan, za-  
goz estutu bagaric, lecuric emon baga-  
ric conca eta larritasunari.

X.

Ez eguiuz ichi, ene semia, iñozbere  
eguin bagaric errezu eta beste egunoro-  
co lan onac, aurquitu arren liortasuna-  
gaz eta debociño bagaric; eta uste izan  
arren, eguiten dozuzala gogo ta boron-  
date bagaric. Gauza onac eguitiari beti  
beguiratuten deutsa Jaungoicuac gogo  
onagaz, borondate onagaz eguiten badi-  
ra; eta beti irabazten da sariya. Guei-  
yago oraindiño, liortasunagaz eguiten  
dan gauza on batec gueiyago baliyodau,  
samurtasunagaz eguiñico ascoc baño,  
aibait onduen eguiteco aleguiña eguiten  
bada, esanagaz, (miiñagaz baño ezpada

bere, cergaitic ece miiñac ez dau esaten viyotzac gura ez dabenic) eguin gura dozuzala Jaungoicuaren borondatia egui- tiarren. Ez zaite bere bildurtu, ene semia, icusi arren gorputzac daucala oquerreraco etsiguitasun eta incliñaciñua. Gorputzaren etsiguitasun eta inclinaciñua, ez da pecatu, ezta utseguiteric chi- quiyena bere, berac escatuten daben gauza charra eguiten ezpada; bestera, onelaco etsiguitasun eta inclinaciño charra goituagaz, gueiyago irabazten da; arriscuetatic igues eguiten bada ardura andiyago bategaz; erabaguiten bada sarritan, ez pecaturic eguitia, batzueta generalian, ez iñoz Jaungoicua ofendie- tia, lenago milla bidar iltia bera ofen- didu baño; beste batzueta ez eguitia araguiyac escatuten dabengauza charrac.

XI.

Ene semia, ez dago ona ta santua izatia gauza onac ugaritutian, larregui eguitian, ezpada ugaritutian eguiten di-

tuzun gaucetan, nai izan oneec premiñazcuac nai borondatezcuac, gogo eta intenciño garbi eta zucena, eguitian bacular bacarric Jaungoicuaren amodiyoz, eta beste bide eta motivo onac gaitic, gueruago obetuago eguiten dozuzala. Ez da bere mesedegarriya, consideraciñoraco gueiasco euquitia, ez da bere erreguta oraciño modu asco, eta ain guichi, erre-gu labur ta jaculatoriya asco esatia. Cembañ sarriyagotan goguan erabilten diran gure fedeco eguiya batbatzuc, aimbat indar gueiyago dauque, gure viyotzac Iguitu eta bigunduteco, eta onelan onera gueiyago ateraten da euretatic. Azquenik eragozpen andiya da ceruco bidian asco aurreratuteco, virtute asco aldebeta-tera alcantzau gura izatia. Virtute bat, beguiraturic cein dan beretzat biarrena, alcantzau, onetan albait gueiyen aurreratu, eta onec lagunduko deutsa bestiac alcantzetan, eta onelan igongo dau ari-miac ontasun ta perfecciño andira. Ezti gueiyago ateraten deutse erlīac, ondo miazcau ta chupetan daben lora bateri,

usain eguin eta euren inguruau egan ibilli baño eguiten ez deutsen loretatic baño.

XII.

Ene semia, ez dago ontasun ta perfecciñoric, mortificaciñoric, ez daguan lecuan. Jesuseri yarraitu gura deutsanac, gogor eguin biar deutsa bere buruari eta gurari ta deseoa charrac ucatu. Achurtu eta guiyetan ez dan lurrac, emoten ditu arantza eta larrac. Mortificau eguiuzu bada gogor, lelengo ceure barrua, azpiratuaz ceure buruaren amodiyo larregui ta bidebagacua, eta ez yagotzuzan gauzac yaquiteco garra; menderatu eguiuzu ceure adimena, euquieric fediaren, errazoiaren, nagusiyaguen aguinduen, eta caridade eta beste virtuten escariyen azpiyan; azpiratu eguiuz ceure viyotzeo cirquin guztiyac, ceure griña eta pasiñoien esetsiyac. Mortificau eguiuz arduraric andiyenagaz beguiyac, belarriyac, eta miña, alde eraguiñic

gauza charretatic, eta gauza charrac ez dirianetan bere, eguiyozuz Jaungoicuari esq' quintzariyac, ucaturic sarritan ceure buruari. Mortificau zaite yanian eta edanian, bada bestelan eragozpen andiyac imiñico deutsuez ceruraco bidian: mortificau eguizu azquenic ceure araguiya, mortificau eguizu ceure gorputza. Santu eta cristiñau onen guztiz gogocuac izan dira, eta egun ditue ngari baruac, lastasunac, artu disciplina ta azotiac, eta erabilli ciliciyuac. Alambere gorputzeco mortificaciñuen ganian yarraitu eguiyozu, ene semia, confesoriaren erechiyari; ez eiquezuz egun bere barri bagaric.

### XIII.

Oraindiño bere, ene semia, emotera nuatsu beste iracatsi batzuc, ceintzuec batetic baliyoco deutsue ceure vicitzia zucenduteco, eta bestetic lagunduko deutsue ceruco bidian asco aurreratuten. Andiyac dira, ene semia, arimiari ecarten deutsazan caltiac, gorputzari emo-

tiac eregu eta atseguin larregui. Ez zaite iñoz egon oian dempora gueiyago, indarrac barriro artuteco biar dozuna bano: osasunagaz daguan gorputz baten-tzat asco da sei edo zazpi orduco lua. Yaiguiten zarianian, beriala emon egui-yozuz esquerrac Jaungoicuari, esquiñi eguiyozuz egun guzti ataco pensamentu, berba eta obra guztiyac; baitabere ceure viyotza; escatu eguiyozu laguntasuna pecaturic ez eguiteco; niri bere erregutu eguidazu izan naquizula bitarteko, errezau eguiyozu ceure aingueru yagoliari, eta santu artuai, artu eguizu gogua, egun guzti atan eguiten dituzun obra on guztiyetan dagozan indulgenciyac irabazteco; igaro eguizu al dozun dempora guztiya oraciño mentalian; eta entzun eguizu, al badozu meza bat.

XIV.

Euqui eguizu ardura andi bat, ene semia, egun guztiyan albait onduen betetaço ceure estadu eta oficiyoco eguinbiar

eta obligaciuac; gorrotoz beguiratu eguiyozu alperreriyari, dalaco gaista-queriya ascoren yatorri ta sustraiya; baitabere berbeta loiyai; eta igues eguizu onelacuetatic albait lasterren: eta olgue-taco daucazun demporan, igues eguizu lagun deunguetatic, yantza nastuetatic, eta ez eiquezu iracurri liburu charric.

XV.

Eguizu aleguiña, ene semia, Jaungoicua beti goguan erabilteco, acordaurie egunian sarritan, beti beguira daucazula; eta icusten dituzala zure viyotzeco gauzaric ezcutuenac. Zucendu zaite sarritan beragana erreguchu labur batzuen bitartez, esquintzen deutsazuzala ceure lan guztiyac eta gauzaric chiquiyenera-ñocuac. Ceure biarrac, pausuac, ibilliyac, nequiac, olgantzac, jana, edana, guztiya zucendu eguizu Jaungoicuaren honra eta gloriyaric andiyenera, onelan beti egon zaitezan eguiten irabaciyyac arimarraco eta ceruraco.

Ceure biar, lan eta arazuac lecuric ichiten badeutsue igaro eguizu dempora zati bat arratsaldian edo gossian oraciño mentalian, liburu onac iracurten, Jesus sacramentadua visitetan, edo ceure errezuac eguiten; etzatera zuazanian eguizu egún ataco pensamentu, berba, eta obra guztiyen esamiñja: emon eguiyozuz esquerrac Jaunari eguin deutsuzan meseide guztiyac gaitic; escatu eguiyozu humiltasunagaz eguin dituzun utseguiteen pareaciña, eta eguijuz erabagui eta propósitu senduac ez gueiyago yauste-co euretan, ez da baten bere.

Ez zaite guelditu, ene semia, domeca eta yai osuetan meza bat entzunagaz bacarric; eguijuz beste gauza onen batzue bere. Eguizu beste egunetan baño oraciño gueiyago; yuan zaite eguin oi dirian elezquizunetara; icasi eguizu dotrinia;

eta badaquizu, iracatsi eguiyezu bestiai: au da lan santu bat, apostolu baten lana.

XVIII.

Illeco egunen baten igaro eguizu, ene semia, edolabere ordu erdi bat esamiñetan eta contuac artuten ceure buruari, ill guzti atan aurreratu, ala atzeratu zarian ceruco bidian; iragarri eguiyo zu ceure confesoriari; entzun eta eguizu arduraz berac esaten deutsuna; artu eguizuurrengo illeraco santuren bat berarizco bitartecotzat; eta asi eguizu ceruraco bidia gogo barriyagaz ta ardura andiya - guagaz.

XIX.

Sacramentu santuac dira, ene semia, graciayac gugana etorteco urbidiac, ceruco iturriyac; orregaitic confesau eta comulgau zaite sarritan, ceure confesoriac ichiten deutsun guztiyan; baña albait prestaeraric onenacaz. Jesuseri, ceure bu-

larraren barruan daucazunian escatu biar deutsazuzan gauceetatic bat da, estadua artu ezpadozu, ezagutu eraguin dagui-zula, ce estadu dan, errazen eta onduen bera amau eta servidu eta ceu salbetaco izango dana. Estadua artutian acertetia, da gueiyen yuacun gauza bat.

XX.

Azquenic neure viyotz guztitic dirau-tsut, ene semia, igaro daguizuzala urtian zortzi bat egun bacartadian, salbetaco neurriyac artuten, igaroten dozula dem-pora au ceure confesoriac esaten deutsun moduan, beguiraturic ceure estadu, osasun eta lanai. Dempora oinetan bar-riztau eguiuz urte guztico confesiñuac, edo ontsuengo barriztau, cenduzanetic onacuac.

---

**Jesusen viyotz sagraduaren devociña,  
beguiratuten yacola bere agoniyan.**

Devociño au da honretaco Jesusen viyotz sagradua, arimen salbaciňuagaitic igaro cituzan penac gaitic bere barruan vicitza guztiyan eta batezbere bere pasiňuan; eta agoniya ain luciagaitic alcantzeta eriyotza on bat; egun bacobian munduan guichi gora beera ilten dirian laroguei milla lagunentzat. Ez da au larregui esatia: ondo ezaguturic eta yaguiñic dago.

**EGUN GUZTIYETARACO ORACIÑUA.**

¡O Jesus guztiz bigun eta arimen maítetzalla guztiz sutsua! Zure viyotz guztiz santuaren agoniyagaitic, eta zure ama guztiz garbiyaren doloriac gaitic, errugutut deutsut, arren garbitu daguizuzala ceure odolagaz mundu guztico pecatari agoniyan dagozanac, eta gaur ilgo dirianac. Amen.

¡Jesusen viyotz agoniyan zagozana, erruquitu zaite eriyotzaco orduan dagozanacaz!

Mariyaren viyotzaren cofrade erru-quiorrac! Cristiñau guztiyac! Eriyotzaren codañiac ebagui biar ditu gaur laro-guei milla lagunen vitzac! Gaur aguer-tu biar dabe Jaungoiznaren aurrian, eu-ren vitzza guztico contu ciatz eta estua emotera! Gaur sartu biar dabe beticoi-raun zoriyonecuan edo zorigaistocuan! Eta oneen artian, ¿cembat ete dira aur-quituten dirianac pecatu mortalian? Er-regutu eguihue, dirautsue eta escatuten deutsue Jesusen viyotzac. Zuec aimbeste maite zaituezan, eta arima guztiyacgai-tic tormentu ain icaragarriyac igaro di-tuzan viyotz onec. Erregutu eguihue batezbere agoniyan dagozan, eta laster iltera duazan pecatariyac gaitic. Asco dabe salbetaco confesiño ondo eguiñico bat, edo acto contriciñoco bat, confesau ecin badira. Erregutu eguiyozue Jesusen viyotz agoniyacuari, emon daguiyuela graciya biyotatic bat; erregutu eguiyo-zue batbere luzatu bagaric, orainche da demporia; biyar berandu izango da.

Erregutu eguihue agoniyan dagozan

**guztiyacgaitic**, eura c dira zuen anaiyac Jesucristogan; menturaz aurquituco dira egòera onetan zuen gurasuac, zuen adisquidiac, zuen onguillac. Erregutu eguihue agoniyan dagozanac gaitic; onegaz eguingo dozue Jesucristoc eguin ebana; salbauco dituzue arimac. ¡Celan ta biar ederra, goratua! Erregutu eguihue agoniyan dagozanac gaitic. Santiago esaten ditu berba oneec: Bere anaiyiari bere egoera charretic urteten lagunduted deutsan edoceñec, salbauco dau bere beraren arimia, eta estalduco ditu bere pecatu ugariyac. Erregutu eguihue agoniyan dagozanac gaitic. Beste batzuc erregutuco dabe, zuecgaitic, aurquituten zareenian agoniyan. ¡Ce atseguiña azquenengo guerra ta burrucaen artian! Zabalduteguihue debociño au alde guztiyetatic. Egun bacochian arima bat bacarric salbetan badozue bere, ¡ce coroia eguingo dozuen beticoiraunerao!

Eriyotza on bat alcantzetaco errengua, atera ebana doncella protestante, amabost urte eucazarian gure erligiñora convertidu, eta amazortzi urtegaz santuta-suneco usañian ilzan batec.

Jesus, ontasuneco Jaun eta Jaungoicua, erruquizco Aita, ni yarten naz zure aurrian viyotz humill, damutu, eta lotsatu bategaz; erregututen deutzut lagundu daguidazula azquenengo orduan, eta andic aurrera icharoten deustanian.

Nire oñac cirquiñic ecin eguiñic adierazoten deustenian, mundu onetako nire demporiac laster amaitu biar dabela:

Jesus guztiz biguna, erruquitu zaitezquez arren nigaz.

Nire escuac icariagaz eta astuntasunagaz ecin eldu deutsenian Jesus curutzian yosiyaren irudiyari, eta neure damuz ichiten deutsadanian yausten dolorezco oiaren ganian:

Jesus guztiz biguna.....

Nire beguiyac bideriyoturic eta oquer-turic, urrian dauquen eriyotziaren bil-

durragaz, ezquelduric eta lausoturic beguiratuten deutsuenian zuri:

Jesus.....

Nire ezpan icarac otzituric aitatuten dabeenian azquenengo aldiz zure icen miragarriya:

Jesus.....

Nire arpegui zurbildu eta morautuari, erruqui eta icariagaz beguiratuten deutsenian nire inguruau dagozanac; eta nire ule eriyotzaco icerdiyan bustiyac, laztu eta gogorturic buruan, adierazoten dabeenian urrian daguala nire azquena:

Jesus.....

Nire belarri, guizonen berbetac entzuteco, betico zarratuac izateco urrian dagozanac, idiguiten dirianian entzuteco zure berba, emongo dabeenac iñoz aldatuco ez dan epai eta sentenciya, erabaguico dabena, cer izango dan nigaz betico iraunian.

Jesus.....

Nire burua eta adimen, icusquizun eta ames bildurgarriz betiac, aurquituten diranian, vicitziə quenduteco duiñeco

larritasunen artian, eta nire arimia zure justiciyaren gomutiagaz bildurturic, nire pecatu ain asco ta ain andiyai beguiratuta, diarduanian burruca illuntasuneta-co ainguerauagaz, ceñec eguingo dituzan aleguiñac alde eraguiteco nire beguiyai zure erruquitasunen atseguiñetic, eta ernegau ta desesperau eraguiteco:

Jesus guztiz biguna erruquitu zaite quez arren nigaz.

Nire viyotz argal eta gacharen peniagaz estutua, daguanian eriyotziaren bildurrez, guztiya necatu eta indargaturic, salbaciñoiaren areriyuen contra eguin dituzan aleguiñacaz:

Jesus.....

Botaten dodazanian beguiyetatic neuraz azquenengo negar malcuac, adierazoten dabeenac ur urrian dala nire amai-ya, artu eiquezuz, Jauna, neuraz peca-tuen amodiyozco daimuac ateriac leguez, onelan il nadin penitenciya eguiten diar-dudala; eta ordu icaragarri atan:

Jesus.....

Nire senide eta adisquidiac baturic ni-

re inguruau samurtuten dirianian icusiric nire egoera penaz betia, eta nigaitic escatuten deutsuenian:

Jesus.....

Ezauera bagaric gueldituta, mundu guziyac igues eguiten dabenian nigan-die, eta aurqustuten nazanian negarrez azquenengo agoniyen eta eriyotzaco larritasunetan:

Jesus.....

Nire arimiac urtetan dabenian betico mundu onetatic, eta ichiten dabenian nire gorputza orituric, otzituric eta vicitza bagaric, artu eguzu nire gorputzaren usteltasun eta deseguitia zure anditasunari eguiten deutsadan autorreria leguez, eta ordu atan:

Jesus.....

Azquennic aguertutenten danian nire arimia zure aurrian, eta icusten dabenian le-lengō aldiz zure anditasunaren arguiya, ez eguzu arren bota zure aurretic; artu naiquezu biguntasunagaz eta erruquiz, cantau daguidazan beti zure alabantzac:

Jesus.....

ORACIÑUA.

¡O Jesus, gugaitic ilten ciñala, ezcutau deuscuzuna eriyotzaco une eta ordua, eguizu arren, igaroric nic neure vici-tzaco egun guztiyac zucentasun eta santi-tasunian, duiñ izan nadilla urteteco mundu onetatic zure amodiyo santuan Jesucristo gure Jaunaren irabaciayac gaitic, cein vici dan, eta ceñec erreñe-tan daben zugaz, Espiritusantuagaz ba-tera, guizaldiyen guizaldiyetan. Amen.

Aita Santu Pio zazpigarrenac emon cituzan- eun eguneco indulgenciyac, egunian bein bacarric irabaci leitequeza-nac, oraciño oneec viyotz damutuagaz erregetan dituezan cristiñau guztiyentzat, escatuteco Jaungoicuaren laguntasuna vicitziaren azquenengo orduataraco; eta indulgenciya plenariya, errezauric ill oso baten, eta confesauric nai dabeen egu-nian, erregututen badabe aita santuac nai dituan premiñac gaitic. Indulgenciya oneec irabaci leitequez purgatoriyyoco arimentzat.

Aita Santuac, edo escubidia daucanedocein sacerdotec bedeincatutaco medallae dauquezan indulgenciya plenariyac.

---

Dagoz indulgenciyac Nativitatez, Erregueen egunian, Erresurreciñoz, Asen-ciyoz, Maiyatz Pascuaz, Trinidadez, Corpusez, Candelariyoz, Ama Virgiña marticoz, Ama Virgiña abustuecoz Ama bost-garrenian, eta Ama Virgiña iraillecoz zortziyan: San Juan Bautistiaren yazyotzan, San Pedro ta San Pabloz, San Andresez, Santiyagoz, San Juan Apostolu ta Evangelistaz, San Bartolomez, San Mateoz, San Simon eta Judasez, San Matiasez; San Josez eta Domuru Santuruz. Egun guzti oneetan bada irabazten da indulgenciya plenariya confesau eta comulgauaz, eta erregutuaz Jaungoicuari heregiyen amaiyagaitic, elessatic campora dagozanen biurreria-gaitic, fede santuaren zabaleriagaitic, erregue cristiñauen arteco baquiagaitic, eta elessa santiaren beste premiñac gaitic; eta onezaz ganera, eguiñaz,

edolabere astian bein, medalla edo curutzeen aurrian, edo oneec aldean dituzala, gauza oneetatic bat: errezaun Jau-naren edo Mariyaren coroia, edo erro-sariyua, edo elezguizonen egunoroco errezuac, edo Ama Virgiñiarenac, edo illenac, edo salmo penitencialac, edo gradualac; edo badanca ecandua eracus-teco doctrinia, edo visitetako presonde-guiyan dagozanac, edo gueissoteguiye-tacuac, edo esquecuai limosnia emona-gaz, edo mecia entzunaz.

Urteco beste egunetan dagoz edoceim-bere oneetatico obra on eguitiagaitic indulgenciya parcial asco; eriyotzako or-duan indulgenciya plenariya, esanagaz viyotz damantuagaz, al badau auagaz, eta ecin badau viyotzagaz Jesusen icena.

Contuan iminten dira guztiyac, curu-tze eta medalla oneec galduen dituezala indulgenciyac, igaroten badira indulgen-ciayac autortu yacozanagandic edo lelengo emon yaquezanaegandic besteren batgana.

Guztiya gueldituten da Erromako Eles-sa Santuaren mendian.

## IDORO-BIDEA.

= *Orrialdea.*

Berbaurrecua. . . . .	3.
Iracatsi. Labur, baña baliyo andicua. . . . .	11.
Illaren lelengo eguneroaco. Guizoenaren azquena. . . . .	21.
Bigarren eguna. Pecatu mortala..	23.
Irugaraen eguna. Aniguueruen castigua. . . . .	25.
Laugarren eguna. Pecatuaren castiguac mundu onetan. . . . .	27.
Bostgarren eguna. Pecatu mortalaren caltiac. . . . .	30.
Seigarren eguna. Salvaciñua. . .	32.
Zazpigarren eguna. Eriyotzia.. .	34.
Zortzigarren eguna. Bacocharen juiciyua eriyotzaco orduan. . .	36.
Bederatzigarren eguna. Munduaren azqueneco guztiyu en juiciyua. . . . .	38.
Amargarren eguna. Sentenciya. .	40.
Amaicagarren eguna. Infernua. .	43.
Amabigarren eguna. Infernuaren pensamentua. . . . .	45.
Amairugarren eguna. Condenadubaten bere arteco berbeta. . .	48.
Amalaugarren eguna. Cerua. . .	50.
Amabostgarren eguna. Beticirauna. . . . .	52.
Amaseigaren eguna. Jaungoicua-	

ren semia guizon eguiten da. . .	54.
Amazazpigarren eguna. Jaungoi- cuaren semiaren yayotzia. . . .	57.
Amazortzigarren eguna. Jaungoi- cuaren semiaren circuncisiñoia.	60.
Emeretzigarren eguna. Jaungoi- cuaren semiaren aguertueria , edo erregueen eguna. . . . .	63.
Ogueigarren eguna. Jesusen Pre- dicaciño eta mirariya. . . . .	67.
Oguetabatgarren eguna. Jesusen trasfiguraciñua. . . . .	71.
Ogueta bigarren eguna. Jesus al- taraco sacramentu santuan. . .	76.
Ogueta Irugarren eguna. Olibuen hortua. . . . .	80.
Ogueta laugarren eguna. Celan saldu eban judasec salbaguillia, eta artu eban preso. . . . .	84.
Ogueta bostgarren eguna. San Pe- droren yasqueria. . . . .	88.
Ogueta seigarren eguna. Cedan izan zan jesus azotaua. . . .	91.
Ogueta zazpigarren Eguna. Arant- zazco coroia. . . . .	94.
Ogueta zortzigarren eguna. Jesus calbariyora bidian. . . . .	98.
Ogueta bederatzigarren eguna.Je- sus curutzian yosiya eta illa. .	102.
Ogueta amargarren eguna. Jesu-	

sen viztuera barriya eta cerura igoeria . . . . .	106.
Ogueta amaicagarren eguna. Es- piritu santuaren etorreria . . . .	111.
Meziaren asieran . . . . .	118.
Consagracionuan . . . . .	121.
Sacerdotia comulguetandanian . .	122.
Azquenengo erreguetan . . . . .	123.
Azquenengo evangeliyuan . . . .	124.
Confesiño eta comuniño aurrera- co ta osteraco oraciñuac . . . .	126.
Lelengo mandamentua. Jaungoi- cua ametia gauza guztien ga- nian . . . . .	128.
Bigarren mandamentua. Ez jura- menturic eguitia alperric . . . .	130.
Irugarren mandamentua . . . . .	130.
Laugarren mandamentua. Aita eta ama ondretia . . . . .	132.
Bostgarren mandamentua. Ez iñor iltia . . . . .	133.
Seigarren mandamentua. Araguiz- co pecaturic ez eguitia . . . . .	134.
Zazpigarren mandamentua. Ez iñori ecer ostutia . . . . .	136.
Zortzigarren mandamentua. Ez guzurric esatia . . . . .	137.
Confesiño aurreraco. Pecatuen da- mua viztuteco . . . . .	138.
Confesiño osteraco. Esquerrac emoteco . . . . .	141.

Comuniño aurreraco. Fedia viz-	
tuteco. . . . .	144.
Pecatuen amodiyozco. Damua viz-	
tuteco. . . . .	145.
Comulguetaco gurariya. Viztuteco	147.
Comuniño osteraco. Jesus adore-	
taco. . . . .	148.
Amodiyua viztuteco. . . . .	149.
Ezquerrae emoteco. . . . .	150.
Ama doncella Mariyac bere viyotz	
garbiyaren cofradiyan sarturic	
dagozanai emoten deutsezan.	153.
Jesusen viyotz sagraduaren devo-	
ciñua, beguiratuten yacola bere	
agonian. . . . .	173.







